

PENTSUAK ETIKETATZEA

767/2009 Araudia
pentsuak merkaturatzean
eta erabiltzean buruzkoa



2010eko
AZAROAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Honako hauek hartu dute parte dokumentu hau egiten:

Lurralde Plangintza, Ingurumen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza

- Humberto Nogueira Gómez. Nekazaritzako Elikagaien Kalitateko ikuskatzailea. Nekazaritzako Elikagaietako Iruzurrak eta Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua. (Bertsioa:2010eko urria) (Berrikuspena: 2010eko azaroa)
- Jorge Amedo Millán. Nekazaritzako Elikagaien Kalitateko ikuskatzailea. Nekazaritzako Elikagaietako Iruzurrak eta Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua

EPEA (Euskadiko Pentsu Ekoizleen Elkarte):

- Iñigo Pascual Moro. Goimar S.L
- Jabi Urkiza Ezkibel. Miba Elkarte Kooperatiboa
- Juan Mari Berrondo Aizpurua. Diva SAT
- José Luís Ibañez Benito. Piensos del Norte
- José Palacios Portillo. Guvac. S. Coop

ELIKA (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa)

- Isabel Martínez Toral. Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (ELIKA)

SARRERA

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak garrantzi handia dute estrategia aldetik, eskualdeen garapen zein aberastasunean; izan ere, bi jarduerok etengabe bermatzen dizkiete elikagaiak gero eta sofistikatuagoak eta jendetsuagoak diren gizarteei.

Gaur egun, elikagaiak nutritiboak ez ezik, seguruak eta jatorri ezagunekoak izan behar dute, eta, halaber, ezaugarri horiek mantendu egin behar dituzte ekoizpen kate osoan, alegia, jatorririk kontsumitzailearengana iritsi bitartean.

Hortaz, pentsu fabrikek, batetik, bete egin behar dituzte baldintza horiek eta, bestetik, aurre egin behar diete mundu lehiakor eta globalizatu honetan egunero topatzen dituzten erronkei. Eta hori gutxi balitz, ezin dituzte bazter utzi animalien ongizatea eta abeltzaintza arloko ekoizpenaren errentagarritasuna.

Hau guztia bete ahal izateko, Europako, estatuko zein erkidegoetako administrazioek arauak ezartzen dituzte. Arau horiek, ordea, maiz aldatu egiten dira aurkikuntzen, aplikazio teknikoen edo kontsumitzaileen eskakizunen arabera.

Arau horietako bat da 767/2009 (EE) Araudia, pentsuak etiketatzeari eta merkaturatzeari buruzkoa. Pentsuei buruzko arau-multzoa zabala da oso, eta multzo horretakoa den 767/2009 (EE) Araudia aldarazteak eragin handia du, pentsuen etiketak aldatzea baitakar.

Etiketa da pentsu baten aurkezpen-txartela eta ezinbesteko baldintza. Etiketen bidez abeltzainek eskaintzen zaizkien pentsu guztiak alderatu eta euren ezaugarriei buruzko informazioa eskura dezakete.

Lan honen bidez, Gobernu honek erantzuna eman nahi izan dio Euskal Herriko pentsu enpresek 767/2009 (EE) Araudiari buruz duten kezka bati. Halaber, Administrazioaren eta Sektorearen arteko bilkurak sustatu nahi ditu araudia modu eraginkor eta azkarrean ezar dadin.

Horren guztiaren fruitu dira aurkezten dizkizuedan dokumentuak. Espero dut pentsu enpresentzat baliagarriak izatea. Guk, geure aldetik, dokumentu horiek web orrian argitaratu, eguneratu, hedatu eta hobetzeko konpromisoa hartzen dugu.

Imanol de la Fuente Arteagabeitia

Elikagaien Kalitateko zuzendaria

LABURPENAK

767/2009 Araudia



2010eko
AZAROAK



INGURUBEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

PENTSUAK-JAKINARAZPENAK

OHAR GARRANTZITSUA: (*) duten erreferentziak dokumentuaren amaiera aldean daude, eta Ingurumen eta Nekazaritza zein Itsas Gaietako Ministerioak argitaratutako galderak eta erantzunak bildu dira 05 KAPITULUAN.

HIZKUNTZA: merkaturatzen den Estatu kidearen edo eskualdearen hizkuntza ofizialean edo hizkuntza ofizialetako batean). (7)

MOTA (15. art., a):

Pentsu osoa [egoki bada, "Edoskitze garaiko pentsu osoa" jar daiteke]

Pentsu osagarria [edo "pentsu minerala"/"edoskitze garaiko pentsu osagarria"]

"Pentsu konposatua": katuak eta txakurrak ez diren laguntza-animalientzako osoaren edo osagarriaren orde.

Etiketaren arduradunaren IZENA edo SOZIETATEAREN IZENA + HELBIDEA (15 art., b.)

Ekoizlea ez bada etiketaren arduraduna (17. art., 1 c) (8)

→ Ekoizlearen IZENA edo SOZIETATEAREN IZENA + HELBIDEA
edo

→ Ekoizlearen ERAGILE-ZENBAKIA 183/2005

ERAGILEAREN ZENBAKIA 183/2005 (15. art., c) (9)

LOTEA (15. art., d)

KOPURU GARBIA (15. art., e)

HELMUGA-ESPEZIEAK EDO -KATEGORIAK (17. art., 1, a) (10) (11)

ERABILERA INSTRUKZIOAK: (17. art., 1, b) **GAINERA:** lehengaien edo pentsu osagarrien gehigarrien mugak pentsu osoei dagokiena gainditzen badu, gehieneko kopurua adierazi behar da. (II. eranskineko 4. puntuaren arabera instrukzioak)

"-pentsu osagarrietan gramo, kilogramo edo bolumen-unitateetan, eta pentsuetarako lehengaietan animaliaiko eta eguneko, edo

- eguneko anoaren portzentajea, edo

- pentsu osoaren kilotan edo portzentajea

- bermatzeko pentsuen gehigarrien gehieneko baloreak betetzen direla eguneko anoan"

GUTXIENKO IRUNKORTASUNAREN DATA: (17. art., 1, d) (12)

- oso galkorrak: "erabili UU/HH/EE baino lehenago"

- gainerakoak: "ahal bada, erabili UU/HH/EE baino lehenago"

- ekoizpen dataren arabera adierazten bada, "erabili ekoizten denetik X egun/aste/hilabetera"

VI. ERANSKINA

VI. ERANSKINA (elikagaietarako direnak)

Pentsua	Osagaiak/maila	Espezieak
Pentsu osoa	Proteina gordina Zuntz gordina Koipe eta gantz gordinak Errauts gordinak Kaltzioa Sodioa Fosforoa Lisina Metionina	GUZTIAK Txerriak/oilategi- hegaztiak
Mineral osagarria	Kaltzioa Sodioa Fosforoa Magnesia	GUZTIAK Hausnarkariak
Pentsu osagarriak eta beste batzuk	Proteina gordina Zuntz gordina Koipe eta gantz gordinak Errauts gordinak Kaltzioa \geq % 5 Sodioa Fosforoa \geq % 2 Lisina Metionina Magnesia $>$ % 0,5	GUZTIAK Txerriak/oilategi- hegaztiak Hausnarkariak

VII. ERANSKINA

VII. ERANSKINA (elikagaietarako EZ direnak) (16)

Pentsua	Osagaiak/maila	Espezieak
Pentsu osoa	Proteina gordina Zuntz gordina Koipe eta gantz gordinak Errauts gordinak	Katuak, txakurrak eta larrugintzarakoak
Pentsu mineralak Osagarria	Kaltzioa Sodioa Fosforoa	GUZTIAK
Pentsu osagarria eta beste batzuk	Proteina gordina Zuntz gordina Koipe eta gantz gordinak Errauts gordinak	Katuak, txakurrak eta larrugintzarakoak

Osagai analitikoaren artean bitaminak, aminoazidoak edo oligoelementuak adierazten badira, eduki osoa jakinarazi behar da (VI. eranskina, II. kap., 2) (17)

Energia- edo proteina-balioa adierazten bada, Europako Batzordearen metodoaren arabera edo metodo ofizialaren arabera jakinarazi behar da (VI. eranskina, II. kap., 3) (18)

Ez ahaztu SEGURTASUNARI buruzko erreferentziak

(19)(20)(21)(22)(23)(24)Urea →(25)

Mp (26)/ AHM gehigarriak→(27)

Berariazko izena/Kopurua→(28)

GEHIGARRIAK (aurre-nahas. edo puruena)

(15. art., f/ 22. art.,1)

Zootenikoak:
 Digestio-laguntzaileak
 Heste-floraren egonkortzaileak
 Ingurumenerako substantzia onuragarriak
 Beste batzuk

“GEHIGARRIAK” (VI. eranskina, I. kap.)
 Onetsi zeneko berariazko izena
 Kopurua
 Identifikazio-zk.
 1831/2003ko talde funtzionala edo 6.1 artikuluko kategoria

KATEGORIA: Zooteknikoak
 gehienezko edukia (a) (*)
KATEGORIA: cocc-histomonost (b)
 urea eta eratorriak (c)

(*)CESFACen gidaliburuak, etiketatuari buruzkoak, gehienezko muga ezarrita duten gehigarrien zerrenda aurkezten du VI. eranskinean (bazkideentzat)

Zenbait gehigarrik derrigorrean adierazi behar dituzte oharrak, erabilera mugatua..., baimen araudian azaltzen direnak, aledia.

1831/2003, I. eranskineko Nutrizionalak) (3,d)
 Urea (2.1.1)
 Biuret (2.1.2.)
 Urea fosfato (2.1.3)
 Diureidoisobutano (2.1.4)

Cocci/Histom (5)
 Decoquinato (E756)
 Monensina (E757 / 5 1 701)
 Robenidina (E758)
 Lasalocid (E763)
 Halofuginona (E764)
 Narasin (E772-E765)
 Salinomocina (E766)
 Maduramicina (E770)
 Diclazuril (E771)
 Semduramicina (E773)
 Nicarbacina (5 1 734)

Gehigarriren bat nabarmenduz gero, adierazi (VI. eranskina,.1. kap., 2. puntua)

- izena
- kopurua

erosleak hala eskatzen badu (VI. erans., 1. kap.,3. puntua)

- izena
- identifikazio-zk.
- talde funtzionala

Gehigarri batzuk talde batekoak baino gehiagokoak dira; beraz, komeni da jakitea aurre-nahasketaren ekoizleak nola etiketatu duen, pentsua etiketatu ahal izateko.

<p>Talde funtzionala (TF): Digestio-laguntzailea (4a)</p> <p>3-fitasa (4a1600 / 4a1, 5 y 6) Endo 1-4 β xylanasa (4a1606 y 13 / 4a7, 8, 9, 10, 11 y 62) 6-fitasa (4a1614(i) y 40 / 4a5, 6 y 12) Sacaromices (4a1704 y 11) Prod. Fermentac. Aspergilum Oryzae (4a2) Endo 1-4 mannanase (4a3) Serina Proteasa Bacillus Licheniformis (4a13)</p>
<p>TF: Ingurumena(4c)</p> <p>EZ DAGO</p>
<p>TF: Flora egonkortzailea (4b)</p> <p>Bacillus cereus (4b1701) B. subtilis (4b1820, 21 y 23) B amyloliquefaciens (4b1822) Sacarom. Cere. (4b1702, 10 y 11) Clost. Butyricum (4b1830) Enterococcus faecium (4b184 y 50)</p>
<p>TF: Beste zootek. batzuk (4d)</p> <p>Lantano carb. Octahidr. (4d1) Pediococcus Acidilactici (4d1712) Lactobac. rhamnos + L. farciminis (4d2) Ac. Benzoico(4d210) Diformiato Potasico (4d800)</p>

PENTSU KONPOSATUAK ETA LEHENGAIK → MUGAK EZARRITA BADITUZTE → EZAUGARRI ORGANOLEPTIKOAK
 EDO/ETA FUNTZIONALAK DUTEN ETA MUGA DUTEN LEHENGAIETAN DERRIGORREAN ADIERAZI BEHAR DA → "AHAL DELA,
 (DATA) AURRETIK KONTSUMITU"

GEHIGARRIEN TALDEAK 1831/2003 (CE) ARAUDIAREN ARABERA

1. kategoria: talde funtzionalak "gehigarri teknologikoak" →

- a) kontserbatzaileak → mikroorganismoek edo horien metabolitoek eragiten duten narriaduraren aurka pentsuak babesteko substantziak edo mikroorganismoak
- b) antioxidatzaileak → pentsuetarako pentsuen edo lehengaien kontserbazio-epea luzarazten duten substantziak, pentsuak oxidazioak eragiten duen narriaduratik babesten dituztenak
- c) emulsionatzaileak → nahasketa homogeneoa, pentsuetan nahasgarriak ez diren bi fase edo gehiago dituztenak, eratzten edo mantentzen duten substantziak
- d) egonkortzaileak → pentsuen egoera fisikokimikoari eusteko aukera ematen substantziak
- e) lodigarriak → pentsuen biskositatea areagotzen duten substantziak
- f) gelifikatzaileak → gel bat sortuta, pentsuari egitura ematen dioten substantziak
- g) ligatzaileak → pentsuen partikulen atxikitze joera areagotzen duten substantziak
- h) Erradionukleioideek eragindako kutsadura kontrolatzeko substantziak → erradionukleioideen xurgatzea bertan behera uzten duten edo iraizketa areagotzen duten substantziak
- i) antiaglomeratzaileak → pentsuen partikulen atxikitze joera murrizten duten substantziak
- j) garratzasunaren erregulatzaileak → pentsuen garratzasuna edo alkalinitasuna erregulatu duten substantziak
- k) siloratzeko gehigarriak → siloratzeko prozesua hobetzeko pentsuei gehitzen zaizkien substantziak, entzimak edo mikroorganismoak barne
- l) desnaturalizatzaileak → eraldatutako pentsuak ekoizteko erabiltzen direnean, berariazko pentsuetarako pentsuen edo lehengaien jatorria identifikatzen laguntzen duten substantziak
- m) mikotoxinek eragindako kutsaduraren erreduktoreak → (1) xurgatzea bertan behar utzi edo murriztu, iraizketa areagotu edo mikotoxinen jarduera aldatzen duten substantziak

2. kategoria: talde funtzionalak "gehigarri organoleptikoak" →

- a) koloratzaileak →
 - i) pentsuei kolorea gehitu edo ematen dioten substantziak
 - ii) animalia jatorriko elikagaiei kolorea emateko, animaliei ematen zaizkien substantziak
 - iii) arrain edo txori apaingarriei kolore biziagoa ematen dieten substantziak
- b) aromatizatzaileak → pentsuen aroma edo ahogozotasuna areagotzen duten substantziak

3. kategoria: talde funtzionalak "gehigarri nutrizionalak" →

- a) bitaminak, probitaminak eta kimikoki definituta dauden eta antzeko eragina duten substantziak
- b) oligoelementuak edo oligoelementuen konposatuak
- c) aminoazidoak, bere gatzak eta analogoak
- d) urea eta bere eratorriak

(1) 386/2009 (CE) Araudiak aldatua

**DERRIGORREZKO
ADIERAZPENAK PENTSU
ETA LEHENGAIETAN**

4. kategoria: talde funtzionalak “gehigarri zooteknikoak” →

- a) digestio-laguntzaileak → irentsitako elikagaien digestioa errazteko animaliei ematen zaizkien substantziak, pentsuen zenbait lehengai eragina dutenak
- b) heste-floraren egonkortzaileak → heste-floran eragin positiboa izateko animaliei ematen zaizkien mikroorganismoak edo kimikoki definituta dauden beste substantzia batzuk
- c) ingurumenerako substantzia onuragarriak
- d) beste gehigarri zootekniko batzuk

5. Kokzidiostatikoak eta histomonostatikoak



BORONDATEZKOA DA adieraztea nutrizio-gehigarrien kategoriako zooteknikoak/coccidiostatikoak/histomonostatikoak/ urea eta eratorriak ez diren guztiak (VI. eranskina, 1. kap., 4. puntua) (29)

Guztia edo zati bat	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Onetsi zeneko berariazko izena ▪ Kopurua ▪ Identifikazio-zk. ▪ 1831/2003ko talde funtzionala edo 6.1 artikuluko kategoria
---------------------	--

BORONDATEZKOA DA ADIERAZTEA organoleptikoak (koloratzaileak, aromatizatzaileak) edo funtzionalak badira (VI. eranskina, 1. kap., 5. puntua) (30)

Gehigarriren bat talde funtzional batekoa baino gehiagokoa bada, pentsuari dagokion funtzio nagusiaren arabera talde funtzional edo kategoria nagusia adierazi behar da. (VI. eranskina, 1. kap., 6. puntua) (Entzimen kasua 4An eta 5ean, (mikroorganismoentzat berdin)

Berariazko nutrizio-helburuak dituzten pentsuek, gainera:

- "dietetikoak": pentsuaren izenarekin batera (18. art., a) → zerrenda egin gabe dago
- erabili aurretik kontsultatu (18. art., c)
- aurreikusitako erabilerak (18. art., b eta 9. eta 10. art.)

Txakur eta katuenak: telefono-zenbakia edo bide azkarren bat (19. art.) erosleak honako hauei buruzko informazioa jaso dezan:

- dituen gehigarriak (19. art., a)
- lehengaiak kategoriaka (19. art., b)

Segurtasun/merkaturatze baldintzak betetzen ez dituzten pentsuak (20. art.)

- honela etiketatuko dira: "2002/32/CE Zuzentarauaren I. eranskineko kopuru handiegia(k) duten/dituzten pentsuak. Erabili pentsu gisa baimendutako establezimenduetan detoxifikatu ostean"
- kutsadura deuseztatu edo murriztu egin behar bada: "2002/32/CE Zuzentarauaren I. eranskineko kopuru handiegia(k) duten/dituzten pentsuak. Erabili pentsu gisa egoki garbitu ostean"

SALBUESPENAK

1. EZ DIRA BEHARREZKOAK IZANGO BALDIN ETA EROSLEAK, TRANSAZIOA GAUZATU AURRETIK, IDATZIZ ADIERAZI BADU EZ DUELA INFORMAZIO HORI BEHAR (21. art., 1) (31)

Lehengaietarako eta pentsuetarako oharrak

ROAA zenbakia

LOTEA

Kopurua

Hezetasuna

eta, V. eranskinaren arabera, lehengaietarako derrigor adierazi beharrekoa.

2. ETIKETATIK KANPO HONAKO HAUEK ADIERAZ DAITEZKE (21. art., 2) (32)

ROAA zenbakia

LOTEA

Kopurua

Gutxieneko iraunkortasun data teknologikoak ez diren gehigarrientzat

Ekoizlea etiketatuaren arduraduna ez bada sozietatearen izena edo izena +helbidea edo ekoizlearen ROAA zenbakia

Gutxieneko iraunkortasun data

Lehengaien zerrenda "Osaera" idazpuruaren barruan

3. HONAKO ADIERAZPEN HAUEK EZ DIRA DERRIGORREZKOAK IZANGO GEHIGARRIRIK EZ DUTEN (KONTSERBATZAILEAK EDO SILORATZEKOAK SALBU) LEHENGAIETARAKO, BALDIN ETA LEHENGAI HORIEK 183/2005 ARAUDIKO I. ERANSKINEKO USTIATEGI BATETIK BERE USTIATEGIAN BERTAN ERABILTZEKO ERABILTZAILEREN BATI EMATEKO BADIRA (21. art., 3)

Lehengaietarako eta pentsuetarako oharrak:

ROAA zenbakia

LOTEA

Kopurua

Hezetasuna

eta, V. eranskinaren arabera, lehengaietarako derrigor adierazi beharrekoa.

4. ALEEN NAHASKETETARAKO VI. ETA VII. ERANSKINETAKO DERRIGORREZKOAK EZ DIREN ADIERAZPENAK (21. art., 4)

5.- 1, 2 edo 3 LEHENGAI DITUZTEN PENTSU KONPOSATUETAN EZ DA DERRIGORREZKOA (21. art., 5)

Helmuga-espezieia
Aurreikusitako erabilera

6. 20 KILO BAINO GUTXIAGOKO ONTZIRATU GABEKOAK AZKEN ERABILTZAILAIENTZAT (21. art., 6) (33) (34) (35)

Agiri honetan aipatutako adierazpenak ez dira derrigorrezkoak izango, eta saltokian iragarki batean agertu ahal izango dira.

Ordainagiri edo atxikitako agirietan:

Pentsu mota
Espezieia
Erabilera
Lehengaien derrigorrezko adierazpena

7.- LAGUNTZA-ANIMALIENTZAKO PENTSUA, HAINBAT ONTZITAN ONTZIRATUA BADAGO ETA 10 KILO BAINO GUTXIAGOKO PISU OSOA BADU, KANPOKO ONTZIAN HONAKO HAU JAR DAITEKE:

Enpresaren izena
ROAA zenbakia
Gehigarrien zerrenda
Hezetasuna (hala balegokio)
Erabilera instrukzioak
Izena edo sozietatearen izena + helbidea + etiketaren arduradunaren ROAA zenbakia, baldin eta etiketaren arduraduna ez bada fabrikatzailea
Lehengaien zerrenda
VII. eranskinetako derrigorrezko adierazpenak

23.Art,d → ontziratuta ez direnez (36)

PENTSUETARAKO LEHENGAIEN DERRIGORREZKO ADIERAZPENA, (16. artikuluko 1. ataleko b) hizkian jasoa

Pentsuetarako lehengaiak osatua | derrigor adierazi beharrekoa |

01. | Bazka, bazka zakarrak barne | Proteina gordina, > % 10 bada, Zuntz gordina |
02. | Labore aleak |
03. | Labore aleen produktuak eta azpiproduktuak | Almidoia, > % 20 bada Proteina gordina, > % 10 bada Koipe eta gantz gordinak, > % 5 badira Zuntz gordina |
04. | Hazi eta fruitu oleaginosoak |
05. | Labore aleen produktuak eta azpiproduktuak eta fruitu oleaginosoak | Proteina gordina, > % 10 bada Koipe eta gantz gordinak, > % 5 badira Zuntz gordina |
06. | Leguminosen haziak |
07. | Leguminosen hazien produktuak eta azpiproduktuak | Proteina gordina, > % 10 bada Zuntz gordina |
08. | Tuberkuluak eta sustraiak |
09. | Tuberkulu eta sustraien produktuak eta azpiproduktuak | Almidoia Zuntz gordina HCln disolagarria ez den errautsa, materia sikuaren > % 3,5 bada |
10. | Erremolatxa-azukrearen industriako produktuak eta azpiproduktuak | Zuntz gordina, > % 15 bada Azukrea guztira sakarosa erara adierazia HCln disolagarria ez den errautsa, materia sikuaren > % 3,5 bada |
11. | Kanabera-azukrearen industriako produktuak eta azpiproduktuak | Zuntz gordina, > % 15 bada Azukrea guztira sakarosa erara adierazia |
12. | Beste hazi eta fruitu batzuk, beren produktuak eta azpiproduktuak, 2tik 7ra bitarteko puntuetan aipatutakoa izan ezik | Proteina gordina Zuntz gordina Gantz eta koipe gordinak, > % 10 badira |
13. | Beste landare batzuk, beren produktuak eta azpiproduktuak, 8tik 11ra bitarteko puntuetan aipatutakoa izan ezik | Proteina gordina, > % 10 bada Zuntz gordina |
14. | Esne produktuak eta azpiproduktuak | Proteina gordina Hezetasuna, > % 5 bada Laktosa, > % 10 bada |
15. | Lurreko animalien produktuak eta azpiproduktuak | Proteina gordina, > % 10 bada Gantz eta koipe gordinak, > % 5 badira Hezetasuna, > % 8 bada |
16. | Arrainak eta itsasoko beste animalia batzuk, beren produktuak eta azpiproduktuak | Proteina gordina, > % 10 bada Gantz eta koipe gordinak, > % 5 badira Hezetasuna, > % 8 bada |
17. | Mineralak | Kaltzioa Sodioa Fosforoa Beste mineral batzuk |
18. | Beste batzuk | Proteina gordina, > % 10 bada Zuntz gordina, Gantz eta koipe gordinak, > % 10 badira, Almidoia, > % 30 bada, Azukrea guztira sakarosa erara adierazia, > % 10 bada, HCln disolagarria ez den errautsa, materia sikuaren > % 3,5 bada |

Lehengai eta pentsuekiko tolerantzia maila

(939/2010 (CE) Araudiak ordeztu egiten du 767/2009 (CE) Araudiaren IV. eranskina)

Tolerantzia teknikoak eta analitikoak batera hartzen ditu aintzat. **(37) (38)**

Koipe eta gantz gordinak		
$\geq 24\%$	$< 24-8\%$	$< 8\%$
$+6 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -3 \text{ u}$	$+25\% \leftarrow \rightarrow -12,5\%$	$+2 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -1 \text{ u}$

Proteina gordina/Errauts gordina		
$\geq 24\%$	$< 24-8\%$	$< 8\%$
$\pm 3 \text{ u}$	$\pm 12,5\%$	$\pm 1 \text{ u}$

Zuntz gordina		
$\geq 20\%$	$< 20-10\%$	$< 10\%$
$\pm 3,5 \text{ u}$	$\pm 17,5\%$	$\pm 1,7 \text{ u}$

Errauts disolbaezinak CIH		
$\geq 5\%$	$< 5-1\%$	$< 1\%$
$\pm 1 \text{ u}$	$\pm 20\%$	$\pm 0,2 \text{ u}$

Azukrea / Almidoia		
$\geq 20\%$	$< 20-10\%$	$< 10\%$
$+7 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -3,5 \text{ u}$	$+ 35\% \leftarrow \rightarrow -17,5\%$	$+3,4 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -1,7 \text{ u}$

Ca / P guztira / Na / K / Mg		
$\geq 5\%$	$< 5-1\%$	$< 1\%$
$+2 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -1 \text{ u}$	$+40\% \leftarrow \rightarrow -20\%$	$+0,4 \text{ u} \leftarrow \rightarrow -0,2 \text{ u}$

Hezetasuna			
$\geq 12,5\%$	$< 12,5-5\%$	$< 5-2\%$	$< 2\%$
$\pm 8\%$	$\pm 1 \text{ u}$	$\pm 20\%$	$\pm 0,4 \text{ u}$

Balore energetikoa	Proteina-Balorea
(Aurretik tolerantziak ezarri ez badira Europako Batasuneko edo nazio mailako metodo ofizialarekin bat)	
$+10\% \leftarrow \rightarrow -5\%$	$+20\% \leftarrow \rightarrow -10\%$

Proteina Gordina / Koipe eta Gantz Gordinak
Lagun egiteko animaliak deklarazioarekin %16 baino <
$\pm 2\%$

Gehigarriekiko tolerantzia

Tolerantzia teknikoak baino ez ditu aintzat hartzen. Gutxienezko eta gehienezko mugak ezarrita badaude, gutxienezkotik gora eta gehienezkotik behera aplikatu ahal izango dira soilik.

Pentsurako gehigarriak, etiketak I, V, VI eta VII Eranskinekiko adostuak				
Finkatutako maximoa gainditzen ez duten bitartean				
>= 1000 u.	>1000-500 u.	>500-1 u	>1-0,5 u.	<= 0,5 u.
+30% ← → -10%	+300u. ← → -100u.	+60% ← → -20%	+0,6u. ← → -0,2u.	+120% ← → -40%

1 u. = 1 mg / 1000 UI / 1×10^9 UFC / 100 U.A.E.

µorganismoentzako gehienezko muga zehaztutako gehienezkoa izango da

LOTURA INTERESGARRIAK

Gehigarrien zerrenda:

http://ec.europa.eu/food/food/animalnutrition/feedadditives/comm_register_feed_additives_1831-03.pdf

FEDNaren TAULAK

<http://www.etsia.upm.es/fedna/tablas.htm>

Lehengai berriz Komunitatearen Erregistroa

<http://www.feedmaterialsregister.eu/>

CESFAC lanabesak:

http://www.cesfac.es/fichas/menu_principal.htm

70/524/CEE Zuzentarauaren 9. unciies artikulua: Gehigarrien zerrenda:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2004:050:0001:0144:ES:PDF>

GALDERA OHIKOENAK



2010eko
AZAROAK



INGURUEN, LURRALDE
PLANGINTZA, BIKAZARITZA
ETA ARRAITZA SALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Galdera ohikoenak (767/2009 Araudia)

Dokumentu honetako agiria orientagarria da, alda daiteke edo honako hauek aldaraz dezakete: legedi berriak, Araudia interpretatzeari buruz MARMek eman ditzakeen erantzunak, Animalien Elikadura arloko Koordinazio Batzorde Nazionalaren erabakiak, eta abar.

Noiz aplikatu beharko da 767/2009 Araudia?

2010eko irailaren 1etik aurrera aplikatu beharko da. Nolanahi ere, 454/2010 (EE) Araudiarekin bat, borondatez 2010eko ekainaren 16ean has liteke aplikatzen, eta urtebeteko luzamendua ezartzen du laguntza-animalientzat, hain zuzen ere, 2011ko irailaren 1era arte.

Nola adierazi behar dira pentsuetarako lehengaiak?

Osaera idazpuruaren barruan adierazi beharko dira. Garrantziaren arabeko hurrenkeran adieraziko dira, hau da, garrantzi handiena dutenetik hasi eta garrantzi txikiena dutenak aipatu arte. Deuseztatu egin da lehengaien portzentajeak derrigorrean adierazi beharra.

Nolanahi ere, fabrikatzaileak adierazi egin beharko du portzentajea (+/- % 15eko tolerantzia aldea) edo formula zehatza, erakunde eskudunak hala eskatzen badu animalien eta gizakien osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua izan daitekeelakoan, eta erosleak aurretiaz ahal eskatzen badu.

Lehengai baten portzentajearen (pisua) jakinarazpenean ba al da salbuespenik?

Bai, pentsuetarako lehengaien izena eta portzentajea (pisua) adierazi beharko da, betiere etiketan hitzen, irudien edo adierazpen grafikoaren bidez nabarmentzen bada.

Lehengaien katalogoa “borondatez” erabili daiteke beti, “izendapenetan” izan ezik?

24.5 artikulua xedatzen du Katalogoa borondatez erabil daitekeela. Nolanahi ere, 56/2002 Errege Dekretuak gure antolamendu juridikoan sarrarazi zituen 96/25/CE eta 82/471/CE Zuzentarauak. Errege Dekretu horrek xedatzen du derrigorrean etiketatu behar direla pentsuetarako lehengaiak, ekoizlearen eta eroslearen artean produktuaren propietateei buruzko informazioa trukatzeko. Beraz, zenbait ohar derrigorrean adierazi behar dira lehengaiekin batera.

767/2009 Araudiaren 28. kontuan-hartuzkoak dio katalogoa borondatez erabil daitekeela, pentsuetarako lehengaiaren izendapenean izan ezik. Izendapena erabili ahal izango da, baldin eta lehengaiak katalogoaren xedapen guztiak betetzen baditu.

16.1.b artikulua dio lehengaiekin batera derrigorrean jakinarazi behar direla V. eranskineko adierazpenak. Hala ere, Katalogokoa erabili ahal izango da, lehengaiak xedapenak betetzen baditu.

Hortaz:

Lehengaien izendapena: lehengaiak Katalogoko xedapenak bete behar dituzte.

Adierazpenak: 242/2010 (CE) Araudiaren V. eranskinekoak edo Katalogokoak.

Jarri egin behar al dira iraunkortasun- eta ekoizpen-data?

Iraunkortasun-data ekoizpen-dataren arabera jar daiteke: epea (egun edo hilabeteak) ekoizpen-dataren ondoan, betiere ekoizpen-data etiketan azaltzen bada.

Dena (berariazko izena, kopurua, identifikazio-zk., talde funtzionala) jarri behar al da gehigarri guztietan? Antioxidatzaileei, koloratzaileei eta kontserbatzaileei dagokienez, talde funtzionala baino ez da adierazi behar?

Bai, gehigarri guztietan jarri behar da.

Antioxidatzaileei eta kontserbatzaileei dagokienez: mugak dituztenean soilik (guztiak ez dute mugarik).

Koloratzaileei dagokienez: mugak dituztenean soilik. Koloratzailea borondatez adierazten bada, kopurua adierazi behar da.

Onartzen al da tolerantziarik gehigarrientzat?

Araudiaren IV. eranskinean adierazten dira pentsuen gehigarrientzako tolerantziak.

Gehigarrientzako tolerantzia aldeak, zergatik adierazi behar dira? Aldeak txikiak direlako, handiak direlako ala bi arrazoiengatik?

767/2009 Araudiaren IV. eranskina bat dator 96/25/CE Zuzentarauaren 7. puntuko A atalarekin eta 56/2002 Errege Dekretuko I. eranskineko VII. atalarekin. Biotan aipatzen da honako hau: adierazitako osaera eta lehengaiaren osaera bat ez datozenean, hau da, adierazpenean lehengai murriztu egiten denean, ez da onartuko adierazitakoa baino tolerantzia alde handiagorik.

Aukerakoa al da bitaminak, aminoazidoak eta oligoelementuak osagai analitiko gisa adieraztea?

VI. eranskineko II. kapituluko 2. puntuak honela dio: "aminoazidoak, bitaminak edo oligoelementuak "osagai analitikoak" atalean adieraziz gero, kopuru osoa adierazi behar da".

Beraz, aminoazidoak, bitaminak eta/edo oligoelementuak osagai analitikoetan borondatez adieraz daitezkeela ulertzen da. Hala ere, badira derrigorrean adierazi behar direnak helmuga-espezia edo ezaugarri bereziak izateagatik.

Horrela, substantzia horiek adierazi nahi dituzten pentsu-enpresek badute horiek adieraztea, betiere gehigarriaren izaeragatik etiketatzea derrigorrezkoa ez bada.

Substantzia horiek etiketan adieraziz gero, kopuru osoa adierazi behar da, hau da, borondatez gehitutako kopurua gehi pentsuetarako lehengaiak berez dutena.

Hortaz:

Badago aukerako etiketa bat substantzia horientzat.

Nola etiketatu behar dira lisina eta metionina? Non sartu behar dira: osagai analitikoetan eta/edo gehigarrietan eta/edo pentsuen lehengai gisa?

OSAGAI ANALITIKO gisa ADIERAZI behar dira derrigor txerrientzako eta hegaztientzako pentsuetan. Pentsuan duten kopurua adierazi behar da.

Gehituz gero, ez dira lehengaiak izango, gehigarriak baizik. Beraz, ez dute osagaien zerrendan azaldu behar.

Halaber, ez dira I. eranskineko (1831/2003 Araudia) gehienezko edukikoak edo nutrizionalak. Beraz, ez dira derrigor adierazi behar gehigarrietan, borondatez ez bada.

Hortaz, gehitzen ez badira: adierazi behar da lehengaiak berez duten kopurua.

Gehituz gero, eduki osoa (lehengaien berezko edukia + gehitutakoa) adierazi behar da.

Nola etiketatzen dira zinka eta burdina?

Mugak dituzten oligoelementuak dira honako hauek: Fe, Zn, Cu, Mn, I, Se, Co, Mb; beraz, adierazi egin behar dira GUZTIAK.

Edo *“gehigarri nutrizionalak”*

edo *“oligoelementuak edo oligoelementuen konposatuak”*.

Onetsi zen uneko berariazko izena

Identifikazio zk.

Kopurua

Zenbait espezie eta ekoizpenetan derrigor aipatu beharrekoak

Adibidez, txahalentzako pentsu osagarria batean:

“Oligoelementuak edo oligoelementuen konposatuak”.

Zinka (E-6) Zink-oxidoa-----100 mg/kg

Cu (E-4) Kobre-sulfato pentahidratatua-----5 mg/kg”

→Xedapen berezia, honako hau aipatu egin behar da baldin eta pentsuen kobre kopurua 20 mg/kg baino txikiagoa bada:

“Pentsu honen kobre-kopuruak kobre-gabezia eragin dezake molibdeno edo sulfuro kopuru handiko larreak kontsumitzen dituzten aziendaren artean”

Sepiolita adierazi egin behar al da etiketatuan?

Bai; izan ere, sepiolitak gehienezko muga du ezarrita pentsuetarako.

Baldin eta gehigarri teknologiko bat gehitzen badiogu aurre-nahasketa bati - aurre-nahasketa hori babesteko edo egintza guragarria eragiteko (kontserbatzailea, antioxidatzailea...) - eta aurre-nahasketa hori azken pentsuari gehitzen badiogu oso kopuru txikian eta ondoren ekintza neurgarrikerik izatea espero ez badugu (nahiz eta gehienezko muga zehatza izan) pentsuen etiketan adierazi behar al da?

Muga ezarrita duenez, pentsuan adierazi egin behar da. Baina, gehigarri bat aurre-nahasketari gehitzen badiogu, eta, diluitu egiten delako, azken pentsuan ekintza neurgarrikerik izatea espero ez badugu, eztabaidatzen ari dira ea pentsuaren etiketan adierazi behar den ala ez.

Erabil al daiteke laburdura osagaiaren batean?

Hasiera batean ez; izan ere, araudiak ez du xedatzen.

Pentsu ekoizlea ez bada etiketatuaren arduraduna, zer jarri behar da etiketan?

Ekoizlearen izena edo sozietatearen izena eta helbidea edo ekoizlearen baimen-zenbakia.

ETIKETA EREDUAK



2010^{eko}
AZAROAK



INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

03

Etiketa ereduak

PENTSU OSOAK

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

UNTXIAK, BAKARRA

Fabrika XXX

Helbidea:

α ESPXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA edozein egoera fisiologikotan dauden UNTXIENTZAT. Nahi adina eman edo anoatuta eman ur garbi eta freskoarekin batera.

Osaera

Alpapa-irina, Oloa, Gari-zahia, Soja-azala**, Ekilore haziaren irina, Kaltzio karbonatoa, Sodio kloruroa, Bikaltzio fosfatoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 14,7. Gantz material gordinak % 3,3. Zelulosa gordina % 17,0. Errauts gordinak % 9,7. Kaltzioa % 1,1. Fosforoa % 0,5. Sodioa % 0,2.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 8.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 1.500 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 10 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 30 mg/kg. Iodoa (E2) potasio ioduroa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 37 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 80 mg/kg. ANTIAGLOMERATZAILEAK. Sepiolita (E562) 22,0 g/kg.

KOPURU GARBIA: 25 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 41217

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



ESNE-TXERRIAK, HASTAPENA

Fabrika XXX

Helbidea:

αESPXXXXXXXXX

OSAGARRIA ESNE-TXERRIENTZAT (titia kentzen zaienetik, gehienez ere, 3 hilabete bete arte). Eman eguneko anoa ur fresko eta garbiarekin batera.

Osaera

Artoa, Soja txigortuaren irina**, Garagarra, Garia, Esne-gazur hautsa, Soja-olioa**, Erremolatxa-mamia. Bikaltzio fosfatoa, Gantz-azidoen gatzak, Sodio kloruroa, Kaltzio karbonatoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 18,6. Gantz material gordinak % 5,7. Zelulosa gordina % 3,7. Errauts gordinak % 5,5. Kaltzioa % 0,7. Fosforoa % 0,7. Sodioa % 0,2. Metionina % 0,4. Lisina % 1,2.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 10.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.500 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 150 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 170 mg/kg. Iodoa (E2) potasio ioduroa 2 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 25 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 120 mg/kg. HESTE-FLORAREN EGONKORTZAILEAK ETA ZOOTEKNIKOAK. B. cereus v. toyoi. NCIMB40112CNCMI1012 (E1701) 10,00x10(8)UFC/kg. ANTIOXIDATZAILEAK. BHT (E321) 50,00 mg/kg. ANTIAGLOMERATZAILEAK. Sepiolita (E562) 5,0 g/kg.

KOPURU GARBIA: 40 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40756

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OILASKOAK, BAKARRA

Fabrika XXX

Helbidea:...

αESPXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIAK hazten ari diren OILASKOENTZAT (jaiotzen direnetik hiltzen dituzten arte). Nahi adina eman ur garbi eta freskoarekin batera.

Osaera

Soja txigortuaren irina**, Garia, Garagarra, Artoa, Kaltzio-karbonatoa, Soja-olioa**, Bikaltzio fosfatoa, Sodio kloruroa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 18,8. Gantz material gordinak % 3,1. Zelulosa gordina % 3,7. Errauts gordinak % 5,5. Kaltzioa % 0,9. Fosforoa % 0,5. Sodioa % 0,2. Metionina % 0,4. Lisina % 1,1.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 10.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 10 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 30 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso-oxidoa 70 mg/kg. Zinka (E6) zink-oxidoa 50 mg/kg. ENTZIMATIKOAK. Endo1,4-Betaxylanasa CE 3.2.1.8. (E1602) 2.340 U/kg. Endo1,4-Betaglucanasa CE 3.2.1.4. (E1602) 720 U/kg. Endo1,3(4)-Betaglucanasa EC3.2.1.6. (E1602) 1.620 U/kg. 6-Fitasa CE3.1.3.26. (E1614i) 450 FYT/kg. ANTIOXIDATZAILEAK. BHT (E321) 1,00 mg/kg.

KOPURU GARBIA: 25 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40017

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OILU ERRULEAK

Fabrika XXX

Helbidea.....

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA OILI ERRULEENTZAT (% 5etik errunaldiaren 20. astera bitartean). Nahi adina eman ur garbi eta freskoarekin batera.

Osaera

Artoa, Soja txigortuaren irina**, Garia, Kaltzio karbonatoa, Garagarra, Soja-olioa**, Ekilore-haziaren irina, Bikaltzio fosfatoa, Sodio kloruroa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 17,5. Gantz material gordinak % 5,2. Zelulosa gordina % 3,6. Errauts gordinak % 12,2. Kaltzioa % 3,6. Fosforoa % 0,6. Sodioa % 0,2. Metionina % 0,4. Lisina % 0,9.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 10.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 5 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 30 mg/kg. Iodoa (E2) potasio ioduroa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 70 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 50 mg/kg. ENTZIMATIKOAK. Endo1,4-Betaxylanasa CE 3.2.1.8. (E1602) 2.340 U/kg. Endo1,4-Betaglucanasa CE 3.2.1.4. (E1602) 720 U/kg. Endo1,3(4)-Betaglucanasa EC3.2.1.6. (E1602) 1.620 U/kg. 6-Fitasa CE3.1.3.26. (E1614i) 450 FYT/kg. KOLORATZAILEAK: Cantaxantina (E161g) 3,0 mg/kg. ANTIOXIDATZAILEAK. BHT (E321) 1,00 mg/kg. ANTIAGLOMERATZAILEAK. Sepiolita (E562) 2,0 g/kg.

KOPURU GARBIA: 25 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40813

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

03

Etiketa ereduak

PENTSU OSAGARRIAK

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZALDIAK, MANTENIMENDUA

Fabrika XXX

Helbidea:

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIAK mantentzeko ZALDIENTZAT. Gehitu bazka-anoari eta ur fresko eta garbiari.

Osaera:

Garagarra, Gari-zahia, Oloa, Ekilore haziaren irina, Alpapa-irina, Soja txigortuaren irina**, Kaltzio karbonatoa, Bikaltzio Fosfatoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak:

Proteina gordina % 15,8. Gantz material gordinak % 2,7. Zelulosa gordina % 9,00. Errauts gordinak % 6,4. Kaltzioa % 1,0. Fosforoa % 0,5. Sodioa % 0,3.

Gehigarriak:

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 12.250 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.630 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 9 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 25 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 32 mg/kg. Zinka (E6) zink-sulfato monohidratatua 47 mg/kg. ANTIAGLOMERATZAILEAK. Sepiolita (E562) 2,0 g/kg.

KOPURU GARBIA: 40 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 41135

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



EDOSKITZE GARAIKO ARDIAK

Fabrika XXX

Helbidea:...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIAK edoskitze garaian dauden ARDIENTZAT. Gehitu bazkanoari eta ur fresko eta garbiari.

Osaera

Artoa, Garagarra, Gari-zahia, Koltza-haziaren irina, Oloa, Alpapa-irina, Palmiste-irina, Soja txigortuaren irina**, Babak eta babatxoak, Erremolatxamamia, Garia, Kaltzio karbonatoa, Kanabera-melaza, Gantz-azidoen gatzak, Sodio kloruroa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 17,3. Gantz material gordinak % 3,5. Zelulosa gordina % 9,8. Errauts gordinak % 6,6. Sodioa % 0,2.

Gehigarriak

BITAMINAK, ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 10.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.500 UI/kg.

KOPURU GARBIA: 40 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40758

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



ERRULEAK, EKOLOGIKOA

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA OILO ERRULEENTZAT. Nahi adina eman errunaldi osoan, ohiko bazkekin eta ur garbi eta freskoarekin batera.

Osaera

Artoa	% 30	Kaltzio karbonatoa	% 8
Garagarra	% 22	Oloa	% 3
Soja txigortuaren presio-taloa	% 20	Bikaltzio Fosfatoa	% 1
Garia	% 15	Sodio kloruroa	% 0,3

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 16,0. Gantz material gordinak % 3,6. Zelulosa gordina % 3,7. Errauts gordinak % 12,4. Sodioa % 0,2. Metionina % 0,3. Lisina % 0,8.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 10.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.000 UI/kg. E bitamina (alfatokoferolak) 20 mg/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 3 mg/kg. Burdina (E1) burdina karbonatoa 30 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 40 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso sulfato monohidratatua 60 mg/kg. Iodoa (E2) kaltzio-iodatoa 1 mg/kg.

KOPURU GARBIA: 25 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 1345



Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.

ERAGILE ZK.: xxxx ES-ECO-026-VAS-EK KONTROLATUA

NOVIEMBRE
2010EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GIZENTZEKO TXAHALAK

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU KONPOSATUAK gizentzeko TXAHALENTZAT (300 kg-tik hil bitarteraino). Eman bazka-anoarekin eta ur fresko eta garbiarekin batera.

Osaera

Artoa, Garagarra, Gari-zahia, Soja txigortuaren irina**, Palmiste-irina, Garia, Gantz azidoen gatzak, Kaltzio karbonatoa, Sodio bikarbonatoa, Sodio kloruroa, Magnesio oxidoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 14,2. Gantz material gordinak % 4,3. Zelulosa gordina % 5,1. Errauts gordinak % 5,8. Sodioa % 0,4.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 8.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 1.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 5 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 12 mg/kg. Kobaltoa (E3) Kobalto monohidratatuaren oinarritzko karbonatoa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso-oxidoa 20 mg/kg. Zinka (E6) zink-sulfato monohidratatua 30 mg/kg. HESTE-FLORAREN EGONKORTZAILEAK ETA ZOOTEKNIKOAK. Saccharomyces cerevisiae CBS 493.94 (E1704) 17,00x10(7) UFC/kg. ANTIOXIDATZAILEA Etoxiquina (E324) 6,00 mg/kg.

Pentsu honen kobre-kopuruak kobre-gabezia eragin dezake molibdeno edo sulfuro kopuru handiko larreak kontsumitzen dituzten aziendaren artean.

ONTZIRATU GABEA: KONTSULTATU PISUA ETA LOTEA EMATE-AGIRIAN

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.

NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HAZTEN ARI DIREN LABEL-DUN TXAHALAK

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU KONPOSATUAK hazten ari diren TXAHALENTZAT (bizi-pisuaren 150 kg-tik 330 kg bitarterainokoak). Eman bazka-anoarekin eta ur fresko eta garbiarekin batera.

Osaera

Garagarra, Artoa, Gari-zahia, Soja txigortuaren irina**, Palmiste-irina, Garia, Kaltzio karbonatoa, Sodio bikarbonatoa, Gantz azidoen gatzak, Sodio kloruroa, Magnesio oxidoa, Soja-olioa**.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 15,0. Gantz material gordinak % 3,7. Zelulosa gordina % 5,6. Errauts gordinak % 5,9. Sodioa % 0,4.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 8.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 1.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 5 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 12 mg/kg. Kobaltoa (E3) Kobalto monohidratatuaren oinarritzko karbonatoa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 20 mg/kg. Zinka (E6) zink-sulfato monohidratatua 30 mg/kg. ANTIOXIDATZAILEA Etoxiquina (E324) 6,00 mg/kg.

Pentsu honen kobre-kopuruak kobre-gabezia eragin dezake molibdeno edo sulfuro kopuru handiko larreak kontsumitzen dituzten aziendaren artean.

KOPURU GARBIA: 40 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40745

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



NOVIEMBRE
2010



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ESNETARAKO BEHIAK

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA ESNETARAKO BEHIENZAT. Gehitu, gutxienez, bazkanoaren materia lehorraren % 50i eta ur fresko eta garbiari.

Osaera

Garagarra, Artoa, Gari-zahia, Soja txigortuaren irina**, Palmiste-irina, Koltza- haziaren irina, Soja-olioa**, Kaltzio-karbonatoa, Sodio bikarbonatoa, Sodio kloruroa, Magnesio oxidoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 17,5. Gantz material gordinak % 4,7. Zelulosa gordina % 6,5. Errauts gordinak % 7,0. Sodioa % 0,5.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 14.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 2.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 40 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 100 mg/kg. Iodoa (E2) potasio ioduroa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 100 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 100 mg/kg. SelenioA (E8) sodio selenitoa 1 mg/kg.

ONTZIRATU GABEA: KONTSULTATU PISUA ETA LOTEA EMATE-AGIRIAN

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



BEHI-AZIENDA ESTENTSIBOA, BELAR-MOKORRAK

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA BEHI-AZIENDARENTZAT. Gehitu, gutxienez, bazka-anoaren materia sikuaren % 50i eta ur fresko eta garbiari.

Osaera

Gari-zahia, Alpapa-irina, Koltza-haziaren irina, Palmiste-irina, Garagarra, Laboreen lastoa sosaz tratatua, Ekilore-haziaren irina, Kanabera-melaza, Kaltzio karbonatoa, Sodio kloruroa.

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 16,5. Gantz material gordinak % 3,0. Zelulosa gordina % 14,8. Errauts gordinak % 11,5. Sodioa % 0,4.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 4.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 500 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 3 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 6 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 10 mg/kg. Zinka (E6) zink-sulfato monohidratatua 15 mg/kg. ANTIOXIDATZAILEA Etoxiquina (E324) 3,00 mg/kg. ANTIAGLOMERATZAILEAK. Sepiolita (E562) 20,0 g/kg.

Pentsu honen kobre-kopuruak kobre-gabezia eragin dezake molibdeno edo sulfuro kopuru handiko larreak kontsumitzen dituzten aziendaren artean.

KOPURU GARBIA: 40 Kg

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

LOTEA: 40835

Ahal bada, erabili lotea ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



BEHIAK, UNIFEED

Fabrika XXX

Helbidea: ...

αESPXXXXXXXXX

PENTSU OSAGARRIA ESNETARAKO BEHIENTZAT. Gehitu bazka-anoari eta ur fresko eta garbiari.

Osaera

Alpapa deshidratatua, Garagarra, Artoa, Gari-zahia, Soja-azala**, Soja txigortuaren irina**, Palmiste-irina**, Koltza-haziaren irina, Gantz azidoen gatzak, Kotoi-haziak, Kanabera-melaza, Kaltzio karbonatoa, Sodio bikarbonatoa, Soja-olioa**, Sodio kloruroa, Magnesio oxidoa.

**Genetikoki eraldatutako soja-babez egina

Osagai analitikoak

Proteina gordina % 16,8. Gantz material gordinak % 5,5. Zelulosa gordina % 14,2. Errauts gordinak % 8,4. Sodioa % 0,3.

Gehigarriak

BITAMINAK, PROBITAMINAK ETA KIMIKOKI DEFINITUTA DAUDEN ETA ANTZEKO ERAGINA DUTEN SUBSTANTZIAK. A bitamina (E672) 7.000 UI/kg. D-3 bitamina (E671) 1.000 UI/kg. OLIGOELEMENTUAK EDO OLIGOELEMENTUEN KONPOSATUAK. Kobrea (E4) kobre-sulfato pentahidratatua 20 mg/kg. Burdina (E1) burdina-sulfato monohidratatua 50 mg/kg. Iodoa (E2) potasio ioduroa 1 mg/kg. Manganesoa (E5) manganeso oxidoa 50 mg/kg. Zinka (E6) zink oxidoa 50 mg/kg.

ONTZIRATU GABEA: KONTSULTATU PISUA ETA LOTEA EMATE-AGIRIAN

Noiz ekoitzia: 2010/10/10

Ahal bada, erabili ekoizten denetik lau hilabete igaro baino lehen. Gorde leku fresko eta lehorrean.



I. ERANSKINA

Legedia



2010eko
AZAROAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUBEH, LURRALDE
PLANIGITZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

I. ERANSKINA: LEGEDIA

[Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 767/2009 \(EE\) ARAUDIA, 2009ko uztailaren 13koa, pentsuak merkaturatzeari eta erabiltzeari buruzkoa.](#)

[Batzordearen 454/2010 \(EB\) ARAUDIA, 2010eko maiatzaren 26koa, neurri iragankorrei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 767/2009 \(CC\) Araudiarekin bat datorrena, pentsuen etiketatuari buruzko xedapenei dagokienez.](#)

[Batzordearen 242/2010 \(EB\) ARAUDIA, 2010eko martxoaren 29koa, pentsuetarako lehengaien Katalogoa osatzen duena.](#)

[Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 1831/2003 \(EE\) ARAUDIA, 2003ko irailaren 22koa, animalien elikaduran gehigarriei buruzkoa.](#)

[Batzordearen 939/2010 \(EB\) ARAUDIA, 2010ko urriaren 20koa onartutako tolerantziei buruz](#)

[Batzordearen 892/2010 \(EB\) ARAUDIA, 2010ko irailaren 8koa, gehigarriak ez diren jakitutako produktuei buruz](#)

NOVIEMBRE
2010



II. ERANSKINA

Erantzunak



2010eko
AZAROAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKEZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

II. eranskina: ELIKAGAIEN ARLOA KOORDINATZEN DUEN BATZORDE NAZIONALAK HAINBAT ERANTZUN BILDU DITU 767/2009 (CE) ARAUDIA INTERPRETATU EDO APLIKATZEAN SORTU DIREN ZALANTZEN AURREAN (2010eko urriaren 21ean, 0. berrikuspen bertsioa).

1

Hemendik aurrera beharrezkoa izango da lehengaien lote zenbakia agertzea?

Bai, 21. artikulua 1. edo 3. ataletan jasotako salbuespen kasuetan izan ezik. Hainbat pentsugilerekin gertatzen den bezala, adibidez, bere ustategiko animalientzako pentsuak baino ekoizten ez dituzten pentsugileen kasuetan, ez da beharrezkoa izango hainbat informazio etiketan zehaztea, baina horrek ez du adierazi nahi gainontzeko lege betekizunik ez dutela bete behar.

2

Aitortu beharreko lehengaiak izeneko atalean, hainbat informazio argitzeko eskatu da, hain zuzen ere ea pentsugileek dokumentu hori ezinbestez erabili behar duten eta ea lehengaien izen guztiak zehaztu behar dituzten aipatu dokumentuan edo ea lehengaiak beste modu batean zehaztu ahal dituzten.

Katalogoa nahi duenak erabiliko du, borondatezkoa da, beraz (24.5 artikulua). Hala ere, katalogoan zehaztutako lehengairen baten izena erabiliz gero, katalogoan azaltzen diren xedapen guzti-guztiak bete beharko dira etiketan.

Dena den, katalogoa erabiltzea hautazkoa dela esatean, araudi honek jasotzen dituen betekizunei baino ez dio erreferentzia egiten, hau da, ez du bazter uzten beste araudi batzuen betekizun zehatzagoak betetzea, hala nola, OMGen gaineko araudia edo entzefalopatia espongiforme gaixotasunak kontrolatzeko araudia (999/2001 (CE) Araudia).

Katalogoan adierazi bezala agertu behar dira lehengaien izenak etiketan? Katalogoaren borondatezko erabilera interpretatzea.

Lehengairen baten izena katalogoan zehaztuta agertzen bada eta etiketan adierazteko erabili nahi bada, katalogoan agertzen den moduan **agertu beharko da etiketan ere**. Esate baterako, ez da posible izango katalogoan agertzen den lehengaiaren izena erabiltzea eta horren gaineko osagai analitikoak Araudiaren V. eranskinak adierazten duen moduan aitortzea.

Lehengaia katalogoan zehaztuta agertzen ez den kasuetan, adibidez, artikulua honen 6. atalak jasotzen duen erregistroko lehengai berrien kasuan, edo katalogoan agertzen den izena erabili beharrean beste izen bat erabiltzen bada, horrelako kasuetan 767/2009 (CE) Araudiaren I. eta V. eranskinetan zehaztutako xedapenak aplikatu beharko dira.

3

Lehengai baten kategoria zehatu behar dugunean, nora jo behar dugu, 767/2009 (CE) Araudiaren V. eranskinera edo Pentsuetarako Lehengaien Europa mailako katalogora?

Lehengaiak kategoriaka aitortu behar izatea laguntza animaliei baino ez dagokie. Hori kontuan izanda, horrelaxe interpretatu dugu galdera, animalia horientzako elikagaiak gogoan izanda, alegia.

Pentsuak etiketatzeko eta merkaturatzeko araudi berriak indargabetu egin ditu 2010eko irailaren 1era arte aplikatu beharreko hainbat zuzentarau. Hala ere, ez du indargabetu 82/475/CE Zuzentaraua. Zuzentarau horrek zehazten du lehengaietarako zein kategoria erabili ahal den laguntza animalien elikagaietako etiketetan. Zerrenda hori 56/2002 Errege Dekretuaren VI. eranskinean dago jasota. Eta, horri lotutako zuzentaraua indargabetuta geratu ez denez, aplikatu beharrekoa izango da harik eta Batzordeak sortzen duen arte Araudiaren 17. artikulua 8. atalean aurreikusita dagoen zerrenda. Izan ere, zerrenda horrek ordezkatuko du indarrean dagoen zerrenda.

4

Nola interpretatu behar da “azken animalia-espezie” terminoa I. kapituluaren 1. atalaren a) letra aplikatzeko? Horren arabera zehazten dira ezinbestez aipatu beharreko “gehigarriak baldin eta gehigarri horientzako gehienezko edukia zehaztuta badago azken animalia-espezieentzat”. Hainbat informazio argitzeko eskatu da, hain zuzen ere ea “azken animalia-espezie” terminoak erreferentzia egiten dion pentsu konposatuari edo gehigarriari.

Gauzak horrela, azpimarratu nahi dugu etiketatzeari buruzko araudi berriaren VI. eranskina aplikatu beharrekoa dela bai lehengaiekin, bai pentsu konposatuekin. Kontuan hartzen badugu lehengaiari, (erabilera salbuespenak ezarrita dauzkaten lehengaien kasuan izan ezik), bere horretan hartzen baditugu, ez zaiela egokitzen azken animalia-espezierik, ulertu behar dugu atal honek erreferentzia egiten diola gehigarriari eta ez pentsu konposatuari.

Beraz, gehigarrien aipamena kontuan hartu beharko dugu bai lehengaietan bai pentsu konposatuetan, baldin eta azken animalia-espezieentzako gehienezko edukia zehaztuta badago.

5

Nola aipatu behar dira gehigarriak lehengaien etiketan, eta nola dakigu zer den lehengai eta zer pentsu konposatua?

Lehengaiari eragiten dieten gehigarriek etiketan aipatzeko baldintza zehatzak bete behar dituzte zeren eta, modu horretan, pentsuen fabrikatzaileek ahalik eta informazio handiena izango baitute ekoizten dituzten pentsuei etiketa egokia jartzeko.

Horrez gain, lehengaiari dagokionez, bestelako betekizun batzuk ere aipatu behar dira etiketan, hala nola: balizko azken animalia-espezieak, erabilera jarraibideak eta produktua baldintza egokietan kontsumitzeko gutxienezko data.

Produktu bat lehengaitzat, aurre-nahasketatzat edo pentsu osagarritzat hartzeko, kontuan hartu beharko dira araudian zehaztutako definizioak eta erabilera baldintzak. Esate baterako, ezinbesteko baldintza da pentsu osagarri batek, gutxienez, lehengai bi izatea, edo lehengai batek ez gainditzea gehigarri batzuei ezarritako gehienezko muga.

Zalantzarik egonez gero, kontuan hartu beharko da, esaterako, ze nolako gehigarri mota den, nolako kontzentrazio kopuruan dagoen edo bestelako faktore batzuk. Horrela, era egokian sailkatu ahal izango dugu produktua.

6

II. eranskinaren 4. puntua. “Pentsuek gehigarriak edukiko balituzte eta gehigarri horien kopurua altuagoa izango balitz pentsu osoentzat ezarrita dauden baimendutako gehienezko muga baino, gehienezko kopurua zehaztu beharko da...”. Horrek esan nahi du:

1. **Baimendutako gehienezko dosia zehaztu beharko dela gehigarri mugatzaileena kontuan hartuta, edo bestela**
2. **Baimendutako gehienezko dosia zehaztu beharko dela pentsu fabrikatzailearen gomendioari jarraituta.**

Argi dago gehienezko kopurua zehaztu behar dela gehigarri mugatzaileena kontuan hartuta; izan ere, horrela errespetatzen dira gehigarriak erabiltzeko baimena ematen duten araudietan zehazten diren gehigarrien gehienezko balioak. Baina horrek ez du esan nahi, horiez gain eta fabrikatzaileak nahi izanez gero, erabilera baldintza egokiak ezin dituenik gomendatu. Are gehiago, gomendagarria izango litzateke fabrikatzaileak horrela jokatu balu, bereziki pentsu osagarrietan.

7

14.1 artikuluan Araudiak zehazten du etiketa (...) behintzat hizkuntza ofizialean edo merkaturatuko den Estatu kideko edo erregioko hizkuntza ofizialetako batean idatzi beharko dela.

Espainiako Konstituzioak 3. artikuluan zehazten du:

1. Gaztelania Estatuak hizkuntza ofiziala dela. (...)
2. Gainontzeko hizkuntzak ere ofizialak izango dira autonomia erkidego bakoitzean, betiere autonomia erkidegoetako estatutuekin bat etorriz.

Horren ondorioz, etiketa idatzi beharko da behintzat kontuan hartuta zein autonomia erkidegotako saltokitan salduko den elikagaia edo/eta zein ustiategitan egongo den elikagaia; eta, horren arabera, autonomia erkidego horretako hizkuntza batean behintzat idatzi beharko da etiketa.

Hala ere, medikamentuzko pentsuen kasuan, 1409/2009 Errege Dekretuak zehaztutakoa aplikatu beharko da, hau da, etiketa behintzat Estatuak hizkuntza ofizialean idatzi beharko da, gaztelaniaz, alegia.

8

12. artikulua, etiketaren erantzukizuna. 2. atala. Kasu bi agertu dira: lehenengo kasuan, pentsuen bitartekari batek zereala erosi dio biltegiko arduradun bati, eta hainbat neurritako ontziak erabili nahi ditu zereala bere izenean etiketatzeko. Bigarren kasuan, bitartekari berak erosi dio zereala nekazariari, baina ez du ez erregistro zenbakirik, ez baimenik ondoren ontziratzeko. Noren erantzukizuna da etiketa kasu bietan?

Lehenenik eta behin, argitu behar da nekazariak erregistratu behar izateak ez duela ezinbestez eragiten hortik erregistro zenbakirik sortzea.

Azaldutako kasu bietan, zereala merkaturatu nahi badugu merkataritza izen batekin edo izen sozialarekin, etiketaren erantzukizuna izango da zereala merkaturatzen duen markaren bitartekariarena.

4. atala.4. erantzukizuna. "Ulertu beharko zuten". Nola frogatu liteke eta zer ekar liezaioke fabrikatzaileari? Ze nolako ondorioak ekar litzake?

Ez dago argi nolako erantzukizunak exijitu ahal zaizkion bitartekari bati, baldin eta baleude, berak banatutako pentsu bateko etiketan arazo bat antzematen denean.

12.4 artikulua betekizunek erreferentzia egiten diete xehekako pentsuen salmenta ustiatzen duten eragileei edo beroriek banatzen dituzten ustiatzaileei, baina betiere etiketari eragiten ez dietenean. Bitartekari edo banatzaile horiek ez dute etiketaren erantzukizunik, baina akatsak antzeman ahal dituzte etiketan. Dena den, horrek ez luke ekarriko, horien aldetik, ezinbestez analisiak edo bestelako kontrolak egin behar izatea egiaztatu ahal izateko etiketan agertzen dena eta pentsuan aitortutakoa gauza bera dela.

Etiketaren erantzukizun nagusia artikulu honen 2. eta 3. ataletan zehaztutakoa da. Eta horrek fabrikatzaileari ekar diezaiokien arduraren mugatuta egongo da, nolabait, fabrikatzaileak etiketan izango lukeen erantzukizunagatik, segun eta bere markarekin edo izen sozialarekin merkaturatzen duen edo hirugarren batentzat fabrikatzen duen.

5. atala. Eta nola ulertuko da hurrengo kasuan?: pentsuak fabrikatu eta bertan kontsumitzen dituzten establezimenduak dira, baina ekoizpen unitate batzuk dituzte. Beharrezkoa litzateke pentsuak etiketatzea araudiarekin bat etorrira? Kasu horretan nor da azken erabiltzailea?

Bere **ustiategiko beharrak asetzeko** ekoizten duen fabrikatzailearen kasuan, pentsuaren azken erabiltzailea pentsuak fabrikatzen dituen abeltzaina bera da.

Galdera honi erantzuteko, kontuan hartu behar dugu 767/2009 (CE) Araudiaren 4. artikuluan (segurtasun baldintzak eta merkaturatzeko betekizunak) zehaztutakoa. 4.2 atalean zehazten da pentsuen enpresak ustiatzen dituzten eragileek pentsu horiek merkaturatzean bermatu beharko dutela honako hau:

a)(...)

b) Araudi honek eta aplikatu beharreko Europako gainontzeko legeek zehazten duten moduan etiketatu, ontziratu eta aurkeztu dira.

Hau da, 178/2002 (CE) Araudiak zehazten duen bezala, etiketatzeko beharra lotuta dago merkaturatzeko prozesuarekin. Merkaturatzeko produktua ez balitz, ez litzateke beharrezkoa izango etiketaren betekizuna eskatzea, araudiarekin bat etorritz.

Hala ere, etiketatzeko betekizuna ez egoteak ez du esan nahi pentsu horien fabrikatzaileak ez dituela bete behar pentsuetarako gainontzeko betekizunak edo bestelako segurtasun arauak, hala nola: higiene betekizunak, trazabilitateari buruzkoak, kaltegarriak izan litezkeen substantzien gehienezko muga betekizunak, etab.

Zehatzago esanda, edo 178/2002 (CE) Araudiaren 18. artikulua aplikatu behar da, elikagaien eta pentsuen trazabilitateari buruzkoa; edo 183/2005 (CE) Araudiaren I. edo II. eranskina, erregistratzeko eta identifikatzeko betekizunei buruzkoa, pentsu konposatua ekoizteko erabilitako produktuak zein izan diren.

Etiketatzearen erantzukizuna. Fabrikatzeko edo/eta merkaturatzeko planta ugari dituzten enpresen edo enpresa-taldearen kasuan, etiketatze prozesuan arazoak sortuz gero, zalantzak sor litezke zehazteko zein erakunde eskuduni dagokion pentsuetako osasun/txukuntasun/etiketatze arazoak konpontzea. Horrelakoetan, komenigarria litzateke irizpideren bat zehaztea definitzeko zeinek duen erantzukizuna etiketatzean.

Hainbat egoera gerta litezke:

- **Demagun etiketan enpresa edo enpresa-holding bateko helbide zentrala agertzen dela. Helbide horrek ez dauka zertan izan fabrikazio-establezimenduko helbidea. Halaber, demagun fabrika bateko erregistro zenbakia ere agertzen dela, nahiz eta etiketan ez agertu zein den fabrika horren helbidea. Zehaztu liteke, beraz, ekintza guztiak zuzendu behar direla etiketan agertzen den erregistro zenbakia edo/eta baimen zenbakia zehaztu dituen enpresara? Honek ere balio izango luke 15. eta 17. artikuluen c) puntuetan zehaztuta agertzen diren etiketatze arazoaren kasuan.**

- Demagun etiketan agertzen diren helbidea eta erregistro zenbakia ez dagozkiola enpresa berari, norena da erantzukizuna kasu honetan?

Lehenengo kasuan, etiketatzearen erantzukizuna izango litzateke pentsu hori bere markaren izenean edo bere izen sozialaren izenean merkaturatzen duenarentzat, pentsua fabrikatzen den establezimendua enpresa horretakoa den ala ez den kontuan hartu gabe.

Bigarren kasuan, aldiz, etiketatzearen erantzukizuna identifikatuta agertuko litzateke etiketan zehaztu den bai izenarekin edo izen sozialarekin bai helbidearekin. Erregistro zenbakia etiketatzearen erantzulea ez den beste fabrikatzaile bati egokitu ahal izango zaio baldin eta 17.1 artikuluan c) letraren bigarren gidoian agertzen dena – fabrikatzailearen identifikazio osoa erabili beharrean – aplikatzen bada.

Marka enpresen erantzukizuna etiketatzeari dagokionez. Marka enpresa batek pentsu bat fabrikatzen badu eta pentsu hori baimena zein erregistro zenbakia duen elikagaietako beste establezimendu baten izenean (fabrikatzailea izan edo merkataria izan) etiketatzen bada, bigarren establezimendu honena izango da erantzukizuna bai pentsuarena bai etiketatzearena.

Hala ere, marka enpresa batek produktu bat etiketatzen badu banatzaile baten izenean (esate baterako: banatzaile kate baten izenean) (ez merkataria baten izenean) eta banatzaile horrek, animaliak elikatzeke establezimendu bat ez denez, erregistro zenbakirik ez badu, nor da pentsu horren eta etiketatzearen erantzukizuna duena?

183/2005 (CE) Araudian zehazten da hainbat establezimenduk ez dutela zertan bete 2.2 artikuluan zehazten diren baldintzak, bereziki pentsuetako araudiak zehazten duenean establezimendu horiek erregistraturik egon behar direla edo baimena izan behar dutela. Hala ere, horrek ez du esan nahi establezimendu horiek ez direla pentsuetarako establezimenduak. Enpresa horiek "Pentsuetarako enpresak" definizioaren barruan daude zehaztuta, 178/2002 (CE) Araudiaren 3.5) artikuluan zehaztutakoa, bai eta 767/2009 (CE) Araudia aplikatzeko kontuan hartu beharreko definizioetan ere (3. artikuluan).

767/2009 Araudiak ez du salbuespenik egiten etiketatzeko erantzukizunaren inguruan; beraz, 12. artikuluan zehaztutako betekizunak banatzeko establezimenduetan ere aplikatu beharko dira baldin eta bere markaren izenean pentsuak merkaturatzen badituzte.

9

Fabrikatzailea eta etiketatzearen arduraduna identifikatzea. Erregistro edo baimen zenbakiak erabiltzea. Erregistratuta dauden establezimenduek (kooperatibak, lehengaiak fabrikatzaileak,...) adierazi behar dute zein den identifikazio edo erregistro zenbakia? Orain arte ez da beharrezkoa izan, eta badirudi Araudi berriak ere ez duela eskatuko. 15 eta 17. artikulua ez dira inkongruenteak?

Galdera biei erantzuteko komenigarria da azpimarratzea artikulua biak ez direla inkongruenteak, osagarriak baizik.

15. artikuluan c) puntuan zehazten da ezinbestekoa dela etiketan azaltzea etiketaren arduradunaren izena edo izen soziala eta helbidea, eta, hala behar izanez gero, establezimenduaren baimen zenbakia ere azaltzea. "Hala behar izanez gero" esaldiak esan nahi du etiketaren arduradunaren baimen zenbakia zehaztu beharko dela baldin eta establezimendu horrek baimena beharko balu hurrengo araudiekin bat etorritik: 1774/2002 (CE) Araudia eta 183/2005 (CE) Araudia. Europa mailan ez dago inolako araurik exijitzeko

establezimenduei egokitu behar zaiela erregistro zenbakirik bakar-bakarrik erregistroan izena eman nahi dutenean. Beraz, ez litzateke beharrezkoa izango zenbaki hori etiketan agertzea.

Hala ere, 17.c) artikuluan xedapen zehatzagoak agertzen dira, ekoizlea etiketaren arduraduna ez den kasuan, esaterako. Kasu horretan, etiketaren arduraduna identifikatzeaz gain, ekoizlearen izena edo izen soziala eta helbidea zehaztu beharko lirateke. Edo, bestela, pentsuetako higieneari buruzko 183/2005 (CE) Araudiaren 9. artikuluekin bat etorritz, identifikaziorako zenbakia zehaztu beharko litzateke. Artikulu horretan, araudiak aurreikusten du eragileek identifikaziorako zenbaki hori eskatu ahal dutela. Espainian, identifikaziorako zenbaki hori egokitzea aurreikusita dago 821/2008 Errege Dekretuan.

10

Ez dugu sailkapenik animalien espezie edo kategoría estandarrik sailkatzeko eta, ondorioz, etiketan ere zehazteko. Onartu beharko litzateke pentsua merkaturatzen den zonaldearen izen arrunta.

Araudiak ez du zehazten zein den espezie edo kategoría estandarra, baina 429/2008 (CE) Araudian zehaztutakoak erabili ahal dira erreferentzia gisa. Gainera, animalien espezie edo kategoría zehazteak bestelako informazioa ere jaso ahal du, hala nola: animalientzako adin muga edo adin tartea, edo animalia bizientzako pisua. Betiere araudiaren oinarri orokorrak eta animaliak elikatzeako araudia (indarrean dagoena) errespetatzen badira.

11

Pentsuak hiru lehengai edo gutxiago ditutenean ez da beharrezkoa izango espeziea eta erabilera jarraibideak zehaztea.

Bai, horrela da eta horrela zehazten du aipatutako atalak. Salbuespen hori aurreikusita dago, hain zuzen ere, kasu berezietarako, hau da, lehengaiak nahasten direnean gehigarriak erabili gabe. Hala ere, kontuan hartu behar da jarraitu behar dugula aplikatzen 15. artikuluen xedapenak mota honetako pentsuetan. Eta, gehigarriak erabiliz gero, kontuan hartu beharko dugu VI. eta VII. eranskinetan zehaztutakoa, gehigarriak aitortzeari dagokionez.

12

Hainbat informazio argitzeko eskatu da, hain zuzen ere “Produktua baldintza egokietan kontsumitzeko gutxieneko data” definizioari buruz, eta zergatik erabili den “gutxieneko data” “gehienezko data” erabili beharrean. Gutxienekoa da, hain zuzen, data hori gainditu ahal delako eta produktua erabili ahal delako?

Araudi berriaren 3.q) atalean agertzen da zehaztuta “Produktua baldintza egokietan kontsumitzeko gutxieneko data” definizioa: denbora tarte horretan, pentsua biltegitatzeko baldintza egokietan egon bada, etiketatzearen arduradunak bermatzen du pentsuak badituela etiketan zehaztutako propietate guztiak. “Gutxieneko” terminoa erabili da data horretara arte etiketatzearen arduradunak bermatu ahal duelako pentsuak badituela etiketan zehaztutako propietate guztiak. Pentsuak ezaugarri egokiak izan ahalko litzuke aurrerantzean ere, baina etiketatzearen arduradunak ez du bermatzen data horretatik aurrera pentsuak badituela etiketan zehaztutako propietate guztiak.

Horrenbestez, ez dirudi logikoa denik baldintza egokietan kontsumitzeko gutxieneko data gainditu duen pentsua erabiltzea; izan ere, etiketatzearen arduradunak ez du bermatzen data horretatik aurrera pentsuak badituela etiketan zehaztutako propietate guztiak.

13

17.1.e) art. Bertan zehazten da lehengaien portzentajeak zehaztu ahal direla (pisuari erreferentzia eginez). Portzentaje hori% ± 15 eko bitartearekin jarraitu ahal da erabiltzen? Jarraitu ahal da etiketan erabiltzen lehengaien % p/p?

Araudiak etiketaren gutxieneko betekizunak zehazten ditu. Lehengaien kasuan, ezinbestez bete beharreko betekizunen artean honako hauek ditugu: lehengaien izen zehatza eta prozesuan sartu diren beharrezko hurrenkeran. Hala ere, etiketaren arduradunak hortik gorako informazioa ere eman ahal du lehengai baten edo guztien gainean. Are zehatzago, nahi izanez gero, lehengaien portzentajeari buruzko informazioa ere eman ahal du prozesuan sartu diren hurrenkeran, aipatutako atalean agertzen den bezala.

Borondatez eman nahi denean lehengaien portzentajeari buruzko informazioa, pentsu konposaturako prozesuan lehengaiak sartu diren hurrenkeran, alegia, araudiak ez du aurreikusten % 15eko tarterik. Baina tarte hori, aldiz, jasota agertzen da erosleak informazio hori beren-beregi eskatuko balu: 17. artikulua 2.b atalean.

Edozelan ere, komeni da gogoratzea lehengai batzuen izena etiketan jasotzea derrigorrezkoa dela baldin eta lehengai horien presentzia etiketan nabarmendu nahi badugu (17. artikulua 2.a atalean).

14

17.2.c) art. Laguntza animalientzako pentsu konposatuei dagokienez, posible da etiketan zehaztea lehengai batzuk izen espezifikoarekin eta beste batzuk kategoriari erreferentzia eginda?

Bai. 767/2009 (CE) Araudiak ez du mugarik zehazten lehengai batzuk adierazteko izen espezifikoarekin eta beste batzuk kategoriari erreferentzia eginda laguntza animalientzako pentsu konposatuei dagokienez. Beraz, arautegi berria ez da hain zorrotza honetan orain arte indarrean egon denarekin (56/2002 Errege Dekretua) alderatuz gero.

15

Pentsuen gaineko alegazioak ez dira onartu behar merkaturatu baino lehen. Alegazio hori zientifikoki oinarritzen duen informazioa Kontrolerako Agintaritzaren esku jarri beharko da, honek hala eskatuz gero. Agintaritzak onartu edo bazter utzi ahal du. Bazter utziz gero, Batzordearen esku jarri beharko du.

Hauxe izan da araudi berri honen atal berriztatzailea, eragileen alegazioen erabilera erregulatzea, alegia. Eta horri esker, hainbat interpretazio sortu ahal izango dira alegazio zehatz baten inguruan. Puntu honetan garrantzitsua da gogoraraztea atal hau jaso behar dutela etiketa prozesuetako Europa mailako praktika egokietarako kodeek, 25. artikuluan aurreikusitakoek.

Kontrolerako agintaritzaren batek alegazioen gaineko zalantzarik izanez gero, CNCAARA jo ahal izango du adostasuna lortze aldera. Adostasunik lortu ezean edo zalantzak argitu gabe geratuz gero, CNCAAK zalantza helarazi ahal izango dio Europako Batzordera Araudiaren 13.1.b) artikuluaekin bat etorritz.

16

Definizioak: elikagaien ekoizpenerako diren animaliak, elikagaien ekoizpenerako ez diren animaliak eta laguntza animaliak (3. artikulua c), d) eta f) atalak).

Galdera hau egin da definitzeko nola etiketatu behar diren pentsuak baldin eta galderan zehaztutako azpitaldeetakoren batean agertzen badira (esate

baterako, zaldiak). Elikagaien ekoizpenerako diren animaliei buruzko definizioan hurrengo hau hartu behar dugu kontuan: elikatua, hazia edo itxian hazia izan den edozein animalia baldin eta giza kontsumorako elikagaiak ekoizteko helburuarekin egin bada. Honen barruan sartu behar ditugu oro har kontsumitzen ez diren animaliak baina Europa mailan giza kontsumorako animalia espezieak izaten direnak.

Zaldiak dira Europar Batasuneko hainbat herrialdetan giza kontsumorako erabiltzen diren espezieak. Gauzak horrela, zaldiak sartu beharko ditugu aurreko definizioaren barruan; eta, halaber, zaldientzako pentsuak etiketatuta beharko ditugu giza elikagaien ekoizpenerako diren animalien xedapenek zehazten duten bezala, nahiz eta pentsuak jaten dituzten hainbat animaliak ez izan giza kontsumorako animaliak.

Eta, era berean, kontuan hartu beharko dira animalien elikadurari buruz indarrean dauden gainontzeko araudiak ere. Gauzak horrela, 429/2008 (CE) Araudian laguntza animaliak definitzeko agertzen den definizioak ez ditu zaldiak kontuan hartzen "maskotak, eta elikagaiak ekoizteko erabiltzen ez diren animaliak" definitzean, 1. artikularen 1. atalean. Horrez gain, 1069/2009 (CE) Araudiak "abereak" definitzean (3.6 artikularen b) letran) ekidoak hartzen ditu kontuan.

17

Aminoazido, bitamina edo oligoelementuei dagokienez, ulertu behar da hautazkoa dela horiek adieraztea osagai analitiko gisa?

Horrela ulertuko da, derrigorrezkoa ez den kasuetan. Esate baterako, lisina eta metioninaren edukia aitortzea derrigorrezkoa da pentsu konposatu guztietan elikagaiak ekoizteko animalien kasuan.

Zero balioa duten osagai analitikoek dagokienez, berdin zehaztu behar dira etiketan?

Osagai analitikoa derrigorrean adierazi behar denean, beharrezkoa izango da berori agertzea. Horrela, errazago egiaztatu ahal izango da kontuan hartu dela etiketa sortzean.

Derrigorrean adierazi behar ez denean, borondatez adierazi ahal izango da balioetsitako edukia zero dela.

18

Argitu ahal da zer ulertu behar den energia balioa eta proteina balioa terminoekin. Eta argitu ahal da, bide batez, zein metodo onartzen duen EBk edo zein metodo onartzen den estatu mailan adierazpen hori erabiltzeko?

Orain arte ez da posible izan hori kalkulatzeko metodo bateraturik erabiltzea Europa mailan. Elikagaiak ekoizteko animalien kasuan, energia balioa kalkulatzeko metodo bakarra dago Europa mailan eta oilategi-hegaztiei buruzko 152/2009 (CE) Araudiaren VII. eranskinean dago jasota.

Nazio mailan, ez dago metodo aitorturik energia balioa adierazteko gainontzeko abeltzaintza espezieetarako.

Proteina balioari dagokionez, aldiz, eranskin horretan sartu zen hainbat estatu kidetako eskaria oso handia izan zelako. Izan ere, balio horrek aitormen maila altua du nazio mailan proteinaren kalitatearen adierazle gisa. Baina nazio mailan ez dago araudirik balio hori nola kalkulatu zehazteko.

19

Azalpen zehatzagoa eskatu da horri buruz. “Pentsu osagarriek eta lehengaiek ez lukete gehigarririk izan behar pentsu osoetarako zehaztutako gehienezko edukitik baino 100 aldiz altuago, edo kokzidiostatikoen zein histomonostatoen kopurua ez litzateke hortik baino 5 aldiz altuagoa izan behar. Horrek esan nahi du osagarri horien maila gaindituz gero, produktua aurre-nahasketatzat hartu beharko dela?

Artikulu honek irizpide objektiboa ezartzen du zehazteko ea produktu bat sailkatu behar dugun aurre-nahasketen barruan edo pentsu osagarrien sailkapenean. Sailkapen hori oinarria izango da pentsuen higienerari buruzko araudiaren betekizunak zehazteko; eta oinarria eta betebeharra, era berean, ekoizten dituzten pentsu guztiak bere ustiategiko animaliak elikatzeko erabiltzen dituzten pentsuen fabrikatzaileentzat.

Lehenik eta behin, produktu bat sailkatu ahal izateko pentsu osagarrien barruan, kontuan hartu behar ditugu 3.h) eta j) artikuluan zehaztutako bi definizioak: pentsu konposatua eta pentsu osagarria. Pentsu konposatuaren definizioak, eta ondorioz pentsu osagarriarenak, behartzen du produktuak gutxienez pentsuetarako lehengai bi eduki behar dituela.

Sailkapen hori egiteko, ezinbestekoa da egiaztatzea gehigarri bakoitzak ez duela ehunetik gora gainditzen pentsu osorako lege zehaztutako gehienezko muga. Muga hori gaindituz gero, aurre-nahasketa bat izango litzateke, ez bada artikulu horren 2. atala aplikatzen dela; kasu horretan abereen nutrizio helburu zehatzei buruz arituko ginatke eta aurreikusitako erabilera zerrendan agertu beharko litzateke.

Kokzidiostatikoen kasu zehatzari bagagozkio, gehienezko muga hori ez litzateke 100, 5 baizik.

Kontzentrazio faktore berak ezarri dira lehengaientzat. Eta, horren ondorioz, gehigarriak dituzten lehengaiek zehaztutako faktoreak gaindituz gero, aurre-nahasketatzat hartuko lirateke.

Pentsu osagarria eta aurre-nahasketa ezberdintzeko, 100etik gorako diluzioa aurre-nahasketekin erabiltzen da, baina % 1eko diluzioa pentsu osagarriari dagokio?

Ez ditugu betekizunak nahastu behar, ez baita gauza bera kontzentrazio faktorea eta pentsu osagarri bat zein portzentajetan erabili dugun “pentsu oso” batean.

Produktu bat pentsu osagarritzat hartu ahal izateko honako hauek bete behar ditu:

- Gutxienez bi lehengai izan behar ditu.
- Gehigarrien kontzentrazioa ez litzateke izan behar pentsu osoetarako zehaztutako gehienezko edukitik baino 100 aldiz altuagoa, edo kokzidiostatikoen zein histomonostatoen kopurua ez litzateke hortik baino 5 aldiz altuagoa izan behar.

20

15.f) art. Pentsuetarako gehigarrien zerrenda, I. kapituluaren VI. eranskinarekin bat etorriz. Eranskin horretara jotzen badugu, enuntziatuan hurrengo hau azaltzen da: “etiketaren informazioa lehengaientzat eta pentsu konposatuentzat”. I. kapituluak erreferentzia egiten die pentsuetan ezinbestez aitortu beharreko gehigarriei; eta, beraz, 2599/1998 Errege Dekretuaren 17. artikulua ordezkatzeko luke.

VI. eranskinak ezartzen du nola aitortu behar diren gehigarriak pentsu konposatuetan. Galderan adierazi bezala, xedapen honek 2599/1998 Errege Dekretuaren 17. artikulua ordezkatzeko du. 1998. urteko Errege Dekretuaren

artikulu hau bertan behera geratzen da. Izan ere, 767/2009 (CE) Araudiak indargabetu egiten du 70/524 Zuzentarauaren 16. artikulua (767/2009 (CE) Araudiaren 30. artikulua) 1831/2003 (CE) Araudiaren 23. artikulua zehaztutakoa betearaziz.

21

1831/2003 Araudiaren 16. artikulua aldatu izana argitzeko eskatu da.

1831/2003 Araudiaren 16. artikulua aldatu egin zen; izan ere, aurre-nahasketen etiketetan informazio gehiegi eskatzen zela ondorioztatu zen. Aurreko araudian, aurre-nahasketentzat baino ez ziren betekizun batzuk aurre-nahasketetan erabiltzen ziren gehigarri guzti-guztiei aplikatzen zitzairen (esate baterako, lotearen erreferentzia zenbakia eta ekoizpen data).

Horrenbestez, araudia aldatzean arrazionalizatu nahi izan dira aurre-nahasketen etiketetarako betekizunak.

22

29.b) art. "Ez zaie aplikatuko gehitutako pentsuetarako gehigarriei". Zeri egiten dio erreferentzia?

Aldaketa honen helburua da hobeto mugatzea zein informazio eman behar den gehigarriei edo aurre-nahasketari buruz. Adibidez, aurreko galderan aipatutako ekoizpen data eta lotearen erreferentzia aurre-nahasketan baino ez da zehaztuko, eta ez zaio aplikatuko aurre-nahasketak dituen gehigarri bakoitzari.

23

29.3 art. Uler al daiteke ura "euskarria" erabil daitekeela aurre-nahasketa bat egiteko, gehigarriak edozein direlarik?

Ura aurre-nahasketen euskarri gisa sartzeak uretan gehigarrien erabilera onartzea dakar. Eta dagoeneko abian da merkatuan zeuden produktuen jakinarazpen berriak balioesteko eta berriz balioesteko prozesua.

24

Badira zenbait lehengai zeharka osagaiak gehitzen dituztenak, baina osagai horiek zuzenean gehitu ahal dira gehigarrien bidez. Orain etiketan adierazi beharreko gehigarrien kopurua handiagoa denez eta horien tolerantzia ere aplikatu behar denez, honako galdera hau egin nahi da: Gehigarriaren zein kopuru jakinarazi behar da, gehigarriak zuzenean duen kopurua ala pentsuak guztira duen kopurua (lehengaiak gehi gehigarria)?

Jakinarazpena egiteko aintzat hartu behar da gehigarri hori etiketaren zein ataletan sartu den, eta horren arabera egingo da jakinarazpena.

Borondatezko adierazpena "Gehigarriak" epigrafean egiten bada, gehitutako kopurua adierazi beharko da.

Gehigarria nutrizionala bada eta nutrientea "Osagarri analitikoak" atalean jakinarazten bada, nutrientearen kopuru osoa adierazi beharko da.

IV. eranskinetako tolerantziak kontrol ofizialetarako baino ez dira ezarri, eta ez lirateke erabili beharko etiketan adieraziko den gehigarri edo osagai analitiko baten balioa zehazteko.

25

Nola adierazi behar da urea? IV. eranskinak 1. ataleko c) hizkian ezartzen duenaren arabera, urea eta bere eratorriak derrigorrean adierazi behar

dira pentsuen etiketetan. Baina, ez dago egintza juridikorik urea gehigarri gisa onesten duenik. Horregatik eskatu da informazioa, argitzeko gehigarri hori etiketan nola adierazi behar den.

CNCAAk iaz eman zuen interpretazio-ohar bat (3/2009) urea etiketatzeari buruz. Harrezkero zenbait lege aldaketa eman dira, eta aldaketa horien ondorioz, aldatu egin behar izan da interpretazio-oharra, batik bat urea lehengai eta gehigarri gisa adierazteko aukerari dagokionez. Aintzat hartu behar da urea eta bere eratorriak dagoeneko ez daudela lehengaien Europako katalogoan, eta katalogo hori 2010eko irailaren 1etik aurrera aplikatzen dela.

Beraz, egokitzat jo da urea etiketatzearen interpretazioa ordezte; izan ere, interpretazio horren oinarri den araudiaren zati handi bat irailaren 1ean indargabetu zen.

Ondorioz,

1. Urea animaliak elikatzeko gehigarri gisa etiketatu beharko da. Nolanahi ere, 767/2009 (CE) Araudia aplikatzeko data (irailaren 1a) baino lehen etiketatutako urea lehengai gisa etiketatuta egongo da merkatuan, izakinak agortzen diren bitartean, 767/2009 (CE) Araudiko 32. artikulua 1. atalean aurreikusitako xedapen iragankorrekarekin bat.
2. Urearen etiketatu bete egin beharko dira 82/471/CEE Araudian ezarritako eskakizunak, 1831/2003 (CE) Araudiak 10.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
3. Pentsu konposatuetan urearen eta bere eratorrien kopurua jakinarazteko, 82/471/CEE Araudiaren betekizunak aplikatzen jarraituko dira, eta gehigarrien araudiaren 10.1 artikulua izango da lege oinarria. Baina, orain urea "Gehigarriak" epigrafean adierazi behar da.
4. Aplikatu egin behar dira animaliak elikatzeko gehigarri buruzko 1831/2003 (CE) Araudiaren 10.1 artikuluko xedapenak, betiere aintzat hartuta 767/2009 (CE) Araudia aplikatu egiten dela, bai eta etiketatuaren araudiko gehigarrien araudiaren (2.2.g) artikuluan xedatutakoa ere.
5. Talde funtzionala eta identifikazio zenbakia adierazteko, Gehigarri buruzko Europa mailako Erregistroko informazioa erabili behar da, urearen eta bere eratorrien erabilera berriz balioetsi eta identifikazio-kodea zehazten ez den bitartean.

Urea gehigarri gisa berriz balioetsi ostean, urea baimentzeko araudiko xedapen guztiak aplikatu beharko dira, eta utzi egingo zaio 82/471 Zuzentarauko xedapenak aplikatzeari.

26

Produktu bat gehigarri gisa alta emana badago, erabil al daiteke lehengai gisa?

Baliteke zenbait produktu bi zerrendetan agertzea, hau da, lehengaien katalogoan eta gehigarri buruzko Europa mailako erregistroan. Nolanahi ere, Europako Batzordearen helburua da al bait gehien mugatzea bikoizketa horiek.

Horretarako, beharrezkoa izango da 767/2009 eta 1831/2003 araudietan aurreikusitako neurriak aplikatzea, batetik, bermatzeko animaliak elikatzeko erabiltzen diren substantzien sailkapena berbera dela EB osoan; eta, bestetik, ahal den neurrian, bermatzeko kategoria bakarrean sailkatzen direla.

Asmo hori zela-eta onetsi zen 892/2010 (EB) Araudia, Gehigarri buruzko Europa mailako Erregistrotik zenbait substantzia kentzen dituen.

Gainera, 767/2009 (CE) Araudiaren 24. artikuluan aurreikusitako lehengaien Europa mailako katalogoaren lehenengo azterketa formala osatu eta onesteko prozesua amaitzen denean, argiago geratuko da substantzia batzuk nola sailkatu behar diren.

27

Nola adierazi behar da metionina hidroxianalogoaren pentsu konposatuetan?

Galdera hau sartu da, gehigarri hori etiketan adieraztea eztabaidagai izan baita Elikakatearen eta Animalien Osasunaren Batzorde Iraunkorren, Animalien Elikadura Sailean. Batzordearen uztailaren 19ko eta 20ko aktetan adierazpen horri buruzko ondorioak biltzen dira.

Lehenik, metionina hidroxianalogoaren adierazi egin behar da pentsua konposatuetan gehigarriaren epigrafean. Gehitutako kopurua adierazi egin behar da, eta 82/471/CEE Zuzentarauko gainerako betekizunak bete egin behar dira (azido monomeroaren eta azido guztien adierazpena,...), haren legezko egoera urearena bezalakoxea baita.

Bestetik, pentsuan metionina adierazteari dagokionez, Batzordeak ondorioztatu du metioninaren forma guztien (hidroxianalogoaren, lehengaietan dagoen metionina eta gehitu daitezkeen gainerako metionina forma guztiak) batura adierazi behar dela.

28

Nola aplikatu behar dira VI. eranskinaren lehenengo paragrafoa eta VII. eranskina lehengaien eta pentsuen etiketan gehigarriak adierazteko? Galdera horretan planteatzen da "berariazko izendapena" nola interpretatu behar den eta gehigarriaren edo substantzia aktiboaren kopurua adierazi behar den ala ez.

Hasteko, argitu egin behar da zer ulertzen den gehigarriaren berariazko izendapentzat. Ildo horretan, ulertzen da berariazko izendapena dela gehigarria baimentzeko araudiko "Gehigarria" goiburua duen zutabearen azaltzen dena, horixe baita gehigarri hori baimentzen duen egintza juridikoa.

Izendapen horrek ez du zertan bat etorri Gehigarriari buruzko Europa mailako Erregistroan datorrenarekin. Erregistro hori informazioa emateko baino ez da, eta ez ditu ordeztzen gehigarriak baimentzeko araudiak (ikus http://ec.europa.eu/food/food/animalnutrition/feedadditives/registeradditives_en.htm)

Berariazko izendapena zer den argitu ostean, "gehitutako kopurua" (produktuarena edo substantzia aktiboarena) esaldiak zer adierazi nahi duen argitzeko eskatzen da.

Jarraian, talde funtzioetan gehigarriak adierazteko aukeren adibideak ematen dira:

Kokzidiostatoak:

Berariazko izena diklaurila 0,5 g/100g

Baimendutako dosia pentsu kiloko (hezetasuna % 12): 1 mg/kg

Gehitu behar den gehigarri kopurua: 200 g/pentsu tona

Kasu horretan, adierazpena egiteko bi aukera daude:

- a) Diklaurila (% 0,5): 200 g/Tm (edo 200 mg/kg) (gehitutako gehigarria)
- b) Diklaurila: 1 mg/kg (substantzia aktiboa)

Bi adierazpenek ematen dute aukera pentsuak substantzia aktiboaren kopuru egokia duela egiaztatzeko. Nolanahi ere, pentsuen kontrol-metodoak

substantzia aktiboaren kopurua egiaztatzeko aukera baino ez du ematen; izan ere, gehigarriaren % 99,5 eszipienteei (soja irina) eta beste osagai batzuei dagokie.

Oligoelementuak: Kobrea hartzen da adibide gisa, modu organikoan edo ez-organikoan gehitu baitaiteke:

a. Kobre sulfato pentahidratatua. Kobre sulfato pentahidratatua baimentzeko 1334/2003 (CE) Araudian ez da zehazten produktu horrek duen kobre kopurua. Hala ere, nahiko zehazki kalkulatu ahal da, osaera kimiko zehatza baita (diklazurilaren antzera).

b. Aminoazido-hidratoen kobre kelatoa. Gehigarri horren baimena Kobre sulfato pentahidratatuaren araudi berean sartzen da. Hala ere, ezin da jakin zenbateko kobre kopurua ekartzen duen, ez baitira zehazten zein diren kelato hori sintetizatuzko erabiltzen diren aminoazidoak. Beraz, "Aminoazido-hidratoen kobre kelatoa" izendapenean gehitutako kelato kopurua soilik adierazten bada, pentsu erabiltzaileak ez du jakiterik pentsuari zenbateko kobre kopurua ematen dion gehigarri horrek.

c. Glizina-hidratoaren kobre kelatoa (479/2006 (CE) Araudia). Aurreko kasuarekin bezalaxe gertatzen da. Kelatoaren osaera aminoazido bakarrekoa bada ere, ez da zehazten zenbateko kobre kopurua duen.

Gainera, Erreferentziazko Europako Laborategiak onetsitako analisi metodoak oligoelementuak antzemateko baino ez dira, bai kobreakin kasuan bai kelato moduan edo modu organikoan gehitu daitezkeen beste oligoelementu batzuen kasuan (selenioa eta magnesioa, besteak beste). Oraingo ez dira definitu kontrol metodoak oligoelementu horiek gehitzeko modu bakoitza zehazte aldera.

Gainera, kontuan izan behar da lege ezarritako gehieneko mugak zehaztean substantzia aktiboak hartzen direla aintzat eta ez substantzia horiek pentsuari gehitzeko modua. Ondorioz, gehitutako oligoelementua adierazten bada, pentsuaren erabiltzaileak argiago egiaztatu ahal du bete egiten dela indarrean dagoen araudia.

Beraz, oligoelementuei dagokienez, ulertzen da askoz ere gardenagoa dela modu bakoitzak ekartzen duen oligoelementu kopurua adieraztea, gehitutako gehigarriaren kopurua besterik gabe adieraztea baino, bai pentsuaren kontsumitzailearentzat bai kontrol ofizialaren ondoretarako.

Entzimak eta mikroorganismoak. Kasu horretan baimendu egiten dira jarduera entzimakoaren edo mikrobioaren espeziearen eta anduiaren izendapenak erabiltzea. Kontzentrazioa gehigarriaren gramoko jarduera-unitateetan (UFC) adierazten bada, ez da sartzen gehigarriaren izendapenean, baizik eta produktuaren deskribapenean. Adibidez, 4a1613 gehigarriak Endo-1,4-beta-xilanasa, E.C. 3. 2. 1. 8 du izena. Endo-1,4-beta-xilanasa EC 3.2.1.8 gehigarria baimentzeko 1501/2007 (CE) Araudiak gutxienezko dosia zehazten du, jarduera-unitateetan (IFP) pentsu kiloko.

Kasu horretan, gehitutako gehigarriaren kopurua adierazten bada, pentsuaren erabiltzaileak kontsultatu egin beharko du baimentzeari buruzko araudia, pentsuak duen entzima-jarduera kalkulatzeko. Baina, gehitutako jarduera adierazten bada, pentsuaren erabiltzaileak informazio argiagoa izango du.

Horretaz gain, kontrol-metodoak substantzia aktiboa zehazteko baino ezin dira erabili, hau da, ezin dira erabili pentsuari bere horretan gehitutako gehigarriaren kopurua zehazteko.

Ondorioak:

Adierazitako guztiaren ondorioz ulertzen da "gehitutako kopurua" esaldia substantzia aktiboaren kopuruari edo gehitutako jarduera-unitateen kopuruari dagokiela. Izan ere, horrela, batetik, bermatu egiten da pentsuaren erabiltzaileak informazio egokia jasoko duela; eta, bestetik, erraztu egiten dira kontrol ofizialeko sistemak, gehigarriaren modua zehazteko analisi-teknikak erabiltzeko aukerak mugatuak edo hutsalak baitira. Pentsuari gehitu beharreko gehigarrien mugak (gutxienezkoak edo gehienezkoak) lege zehaztuta badaude, gehitze-maila horiek zehaztutako erabiltzen diren unitate berberetan adierazi behar dira.

Gehigarriak etiketatze modu hori baliagarritzat hartuko da, merkatu bakarrerako irizpide erkidea hartzen ez den bitartean edo 767/2009 (CE) Araudian aurreikusitako etiketatuen praktika egokien kodea ezartzen ez den bitartean.

29

4. puntua (eta elikagaietarako ez diren animalientzako VII. eranskinaren 5. puntua). Esaldi honetan zer esan nahi du "partzialki" hitzak? "1. puntuan aipatu gabeko pentsuen gehigarriak borondatez adierazi ahalko dira atal horretan aurreikusitako moduan, edo partzialki".

Gehigarri bat derrigorrean adierazi behar ez bada eta VI. eta VII. eranskinen atal horien arabera jakinarazi ahal bada, ez da beharrezkoa izango 1. atalean zehaztutako informazio osoa ematea. Adibidez, gehigarriaren izena eta gehitutako kopurua adieraz daitezke, baina ez dago zertan adierazi gehigarrien erregistro zenbakia.

30

VI. eta VII. eranskina, 1. kapitulua, 5. atala. Gehigarri organoleptiko edo nutrizional bat modu boluntarioan jakinarazten bada, bitaminak, oligoelementuak eta aminoazidoak gehigarri nutrizionalak dira: etiketan aukerakoa izango al da horiek adieraztea

Gehigarriak lege ezarritako gehienezko muga baldin badauka, derrigorrean adierazi behar da, VI. eranskinaren (eta laguntza animalien elikagaiei buruzko VII. eranskinaren) kapitulu bereko 1.a) atalean xedatutakoaren arabera. Halaber, derrigorrean adierazi beharko da urearen eta bere eratorrien taldekoa bada, edo gehigarri baten presentzia etiketatuan azpimarratzen bada.

Borondatezko jakinarazpena derrigorrean adierazi behar ez diren gehigarrientzat izango da. "Gehigarriak" epigrafean jakinarazten badira, gehitutako gehigarriaren kopurua zehaztu beharko da.

31

Zalantzan jartzen da, zenbait eragilek etiketatuen informazio zati bat emateari uko egitearen ondorioz, erabiltzen duten produktuen trazabilitatea mantenduko ote duten.

Etiketatuaren derrigorrezko informazioaren zati bat ez jasotzeari uko egiteak ez dakar lehengaien edo pentsu konposatuaren trazabilitatea galtzea. Pentsua hornitzen duenak zein jasotzen duenak beharrezko betekizunak ezarri beharko dituzte, pentsuen jatorria eta helmuga ezagunak direla bermatzen dutenak.

Zentzu horretan, beharrezkoa da gogoraraztea 178/2008 (CE) Araudiaren 18. artikulua eta 183/2005 (CE) Araudiaren I. eta II. eranskinek ezarri egiten dituztela edozein pentsu motaren trazabilitateari buruzko betekizunak eta trazabilitatea mantentzeko beharrezkoak diren erregistroak.

32

Agiri laguntzaileaz egiten duen definizioa nahaspilatsua da. Interpretatu ahal da baliagarria dela edozein dokumentu mota, baldin eta etiketa batek izan beharreko datu guztiak baditu? Bai eta informazio hori merkantziarekin batera doan emate-agirian edo fakturan jartzen badu ere?

Araudiak honako hauen betekizunak baino ez ditu ezartzen: derrigorrezko etiketatua eta informazioa agiri laguntzailean sartzeko aukera, ontziratutako gabe edo zigilatutako gabe ontzietan merkaturatu ahal izateko. Betekizun bakarra baino ez da ezartzen, hau da, agiria merkantziarekin batera joatea eta etiketatuari buruzko betekizunak betetzea, bai eta **“arau honekin bat, etiketatuan derrigorrez aipatu beharrekoak”** ere (artikulu honen 2. atala).

11.1.a) art. (...) edo pentsuaren ezaugarriak, zehazki, fabrikazio edo ekoizpen metodoa, (...). Ez da ulertzen zeri egiten dion erreferentzia: pentsuaren aurkezpenari (pikorduna, ehoa, eta abar) edo beste alderdiren bati?

Artikulu honetan pentsuen etiketatuari buruzko printzipio orokorrak ezartzen dira, eta animaliak elikatzeko edozein substantzia hartzen da pentsutzat. Ez da hartu behar pentsu konposatuak ekoizteari buruzko erreferentzia soil gisa, lehengaiak ere egiten baitie erreferentzia.

Printzipio orokor horiek guztiak beteko dira, eta pentsuak araudian xedatutakoaren arabera etiketatu beharko dira. Baina, horretaz gain, lehengaien katalogoa behar bezala erabili beharko da eta araudiaren 25. artikuluan aurreikusitako etiketatu kodeak aplikatu egingo dira; horiek emango baitute orientabidea araudian aurreikusitako zenbait alderdi aplikatzeari buruz, besteak beste, zenbait alegazioren erabilera aplikatzeari buruz.

33

Erreferentzia egiten dio 20 kiloko baino kopuru txikiagoan saltzen diren produktuen inguruan eman beharreko informazioari. Esaten du, beranduen, fakturatzean eman behar zaiola erosleari zenbait informazio. Dena eta gutxi dela (pentsu mota, espezieak, erabiltzeko argibideak...), aurreko araudian ez zen informaziorik ematen. Ez du balio informazioa erakusmahaiari jartzea?

Informazioa saltokian egon daiteke eskura. Atal horrek behartu egiten du, kopuru txiki horiek saltzean, honako informazio hau ematera:

- Pentsu guztientzat: pentsu mota (pentsuetarako lehengaiak, pentsu konposatu osoa edo pentsu osagarria).
- Lehengaiarentzat: pentsuetarako lehengaiaren izendapena.
- Pentsu konposatuarentzat: pentsua kontsumituko duten animalien espeziea edo kategoria, eta pentsua egoki erabiltzeko argibideak.

Etiketatuaren derrigorrean adierazi beharreko gainerako informazioa ez zaio zertan fakturari erantsi, nahikoa da saltokian eskura izatea.

34

50 kiloko baino kopuru txikiagoan saltzen diren produktuak (f puntua). Ez du zentzu handirik 50 kiloko kopurua ezartzea; izan ere, pentsu eta lehengai gehienak 40 kiloko ontzietan merkaturatzen dira. Ontziratutako gabeko salmentari dagokionez, badu zentzua 10 kiloko baino kopuru txikiagoa edo askoz ere kopuru handiagoa ezartzea (establezimendu egileak abeltzaintza ustiategiari ematea).

Galdera hori artikulu horren bi atali dagozkie. Batetik, planteatzen da ontziratutako gabeko salmenta itxiatu ontzien bidez aplikatzea. Ontzi horietatik ateratzen dira azken erabiltzaileari emateko kopuru txikiak. Kasu horretan, ontziratutako gabe saldu ahal da; eta gainera, kopurua 20 kilokoa baino txikiagoa bada (galderak aukera horri egiten dio erreferentzia), 21.6 artikuluko salbuespena aplikatu daiteke.

Salbuespen hori ezin zaie aplikatu 20 eta 50 kilo arteko pentsu kopuruei.

Bestetik, galderan aipatzen da ontziratutako gabeko salmentak normalean pentsu bolumen handikoak izaten direla. Aukera hori aintzat hartzeko, artikulu horretako 2. ataleko a), c), d) eta e) hizkietan aurreikusitako salbuespenak ezartzen dira.

35

21.6 artikulua erreferentzia egiten dio 20 kiloko baino kopuru txikiagoan saltzen diren produktuen inguruan eman beharreko informazioari. Esaten du, beranduen, fakturazean eman behar zaiola erosleari zenbait informazio. Dena eta gutxi dela (pentsu mota, espezieak, erabiltzeko instrukzioak...), aurreko araudian ez zen informaziorik ematen. Ez du balio informazioa erakusmahai jartzeak?

Informazioa saltokian egon daiteke eskura. Atal horrek behartu egiten du, kopuru txiki horiek saltzean, honako informazio hau ematera:

- d) Pentsu guztientzat: pentsu mota (pentsuetarako lehengaiak, pentsu konposatu osoa edo pentsu osagarria).
- e) Lehengaiarentzat: pentsuetarako lehengaiaren izendapena.
- f) Pentsu konposatuentzat: pentsua kontsumituko duten animalien espeziea edo kategoria, eta pentsua egoki erabiltzeko argibideak.

Etiketatuan derrigorrean adierazi beharreko gainerako informazioa ez zaio zertan fakturari erantsi, nahikoa da saltokian eskura izatea.

36

Nekazaritzak abeltzainari zuzenean saltzea. d) puntuan xedatzen da ontziratutako gabe edo zigilatutako gabeko ontzietan (irekiak) merkaturatu ahal izango dizkiotela ekoizleek (pentsuaren egileek?) erabiltzaileari (abeltzainari?) zuzenean saltzen dizkion pentsuak. Hori horrela bada, edozein bezero/abeltzain pentsu fabrikara joan eta pentsu mota bat edo gehiago erosi ahal izango ditu, agiri laguntzaile bat edo gehiago izango dituelarik. Hori nahaste-borrastea izan liteke, bai abeltzainarentzat bai ikuskatzailearentzat; izan ere, fabriketan etiketarik gabeko zaku ugari egon daitezke eta abeltzaina erratu egin daiteke.

Itxi gabeko zenbait zakuren truke komertziala egingo balitz, galderak dioen bezala, ez litzateke zaku horietako bakoitza ontziratutako gabekotzat jo behar eta ez al luke horietako bakoitzak bere agiri laguntzailea eraman behar?

Puntu horrek ba al du zerikusirik 26. kontuan hartuzkoarekin? Azken horrek erreferentzia egiten dio nekazari baten lehen mailako ekoizpena beste nekazari bati saltzeari, bere ustiatzean erabili dezan.

Galdera horren lehenengo zatia ontziratutako pentsuak ontziratutako gabe eta etiketatutako gabeko merkaturatu ahal direla, araudi horren 23. artikulua erekin bat. Hala ere, aintzat hartu behar da ontziratutako gabeko pentsu merkaturatzeak ez duela esan nahi etiketarik izan behar ez duenik.

Eman egin behar da etiketan derrigorrezko informazioa, eta araudiak 21. artikuluan xedatzen dituen salbuespenak eragileek baino ezin dituzte baliatu. Informazio hori agiri laguntzailean ager daiteke pentsuak ontziratu gabe merkaturatuz gero. Galderak planteatzen duen kasuan, ziurtatu egin behar da pentsu mota (edo lote) bakoitza egoki identifikatuta dagoela, jakiteko bakoitza zein agiri laguntzailearena den; izan ere, horrela egiten ez bada, urratu egiten dira elikagaien eta pentsuen araudiak xedatzen dituen trazabilitate-betekizunak.

Galderaren bigarren zatiari dagokionez, 26. kontuan hartuzkoak justifikatu egiten du 21.3 artikuluan aurreikusitako salbuespena (nekazari batek abeltzain bati pentsua hornitzea ustiategian erabil dezan); ez du justifikatzen, ordea, 23. artikulua 2. atalean aurreikusitako salbuespena. Salbuespen hori dagoeneko aurreikusita zegoen aurreko araudian, eta mantendu egin da eraginaren balioespena eta lege testua prestatu aurretik egin ziren kontsulten emaitzak oinarri hartuta. Artikuluaren idazketan pentsuen higieneari buruzko araudiaren definizioa baino ez da egokitu.

37

IV. eranskinean zehaztutako tolerantzia mugak gehigarrien kopuruei ere aplikatuko zaizkie. Gehigarri batzuek mugarik ez izateak arazo larriak sorrarazi ditu. Halaber, jakin beharko genuke ea eranskinean beherako desbideratzeak hartu ote diren aintzat, eta goitiko desbideratzeek ez ote duten arazorik sortuko edo ez ote duten zigorrik jasoko. Gehigarrien mugei buruzko araurik ez izateak arazoak sortu ditu, are gehiago 1831/2003 Araudiak VI. eranskinean honako hau xedatuta: "pentsuetarako zenbait lehengaitan modu naturalean dauden gehigarrien kopurua kalkulatu da, gehitutako elementuen eta berez dauden elementuen kopuru osoak ez dezan gainditu gehigarriak baimentzeko araudian zehaztutako gehienezko muga".

939/2010 (CE) Araudiak zehaztu egiten du zein diren tolerantziak beherako edo goratiko desbideratzeetan, bai gehigarrientzat (eranskinaren B zatia) bai osagarri analitikoentzat (eranskinaren A zatia).

38

Pentsuetarako edo pentsu osagarrietarako lehengaien osagaiak etiketatzeko oharrei buruzko onartutako tolerantzia-aldeak, 11. artikuluko 5 atalean xedatutakoak.

Tolerantzia analitikoaren aldaketari buruzko azalpena ematea eta gehigarrien adierazpenetan tolerantziak aplikatzea.

Araudi horrek lehenengo aldiz xedatu du EBko araudian gehigarrien adierazpenetan tolerantziak aplikatu beharra. Tolerantzia horiek ezarrita, konponbidea eman nahi zaio orain arte indarrean egon den araudiak sorrarazten zuen arazo bati; izan ere, gehigarri baten kopuruak baimendutako gehienezko muga gainditzen bazuen, ez zegoen legezko tolerantziarik ezarrita, eta agintaritzak eskudunek interpretatu egin behar zuten, euren irizpideen arabera, analisiaren emaitzak araudia bete edo urratu egiten zela adierazten ote zuen.

Gehigarriari dagokionez, desbideratze teknikoei baino ez zaizkie aplikatzen; eta, ondorioz, zalantza analitikoa gehitu beharko litzateke.

Animalia guztientzako pentsuei ere (bai eta laguntza animalientzako pentsuei ere) aplikatzen zaiela ulertu behar al da?

Bai, hala da. Eranskina elikagaietarako animalien pentsuei, beste espezie batzuetako animalien pentsuei eta laguntza animalien pentsuei ere aplikatu ahal zaie.

Fabrikatzaileen arabera, laguntza animalientzako elikagaietan e) puntuan (bitaminei buruzkoa) xedatutako tolerantzia mugak badirudi baxuagoak direla zehazte-tekniken zalantzaren muga baino.

Gehigarriei aplikatutako tolerantziak desbideratzen teknikoiei dagozkie (eranskin honen B zatiaren 1. atala). Beraz, zehazte-analisiaren zalantza gehitu egin beharko zaie eranskin honetan ontzat hartzen diren desbideratze tekniko posibleei.

Tolerantziak aldatu egiten al dira 56/2002 Errege Dekretuarekin erkatuz gero?

Egia da Errege Dekretuan xedatzen ziren tolerantziak aldatu egin direla zenbait parametro analitikori dagokienez. Izan ere, Europako Batzordeak erraztu egin nahi izan du tolerantziak aplikatzea, eta testu bakar batean bildu nahi izan ditu lehengaiei zein pentsu konposatuari aplikatu ahal zaizkienak. Horregatik egin dira aldaketa horiek.

d) puntua: % 5 energia balioarentzat eta % 10 proteina balioarentzat. Borondatezko etiketari egiten al dio erreferentzia?

Energia eta proteina balioak jakinaraztea borondatezkoa da; beraz, parametro horien borondatezko jakinarazpenari ezartzen zaio tolerantzia.

e) puntua: pentsuetarako gehigarrien tolerantzia. Eskatu da argitzeko aurre-nahasketarako edo pentsu konposatuetako gehigarriari egiten ote dion erreferentzia. Halaber, eskatu da argitzeko "tolerantzia horiek pentsu konposatuen gehigarrien gehienezko mugari ere aplikatuko zaizkio" esaldiaren esanahia.

Hasiera batean, argitaratutako legezko testutik ez da ondorioztatzen tolerantzia horiek aurre-nahasketari aplikatu behar zaizkienik. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi ezin dela erabakirik hartu etiketaren egiazkotasunari dagokionez, aintzat hartuta beste informazio mota bat, besteak beste, zehaztapen analitikoari lotutako zalantza.

Galderaren bigarren zatiari dagokionez, honako hau adierazten da: gehigarri batek legez ezarritako muga gainditzen badu, baina aurreikusitako tolerantziaren barruan baldin badago, ulertuko da ez dela lege urratzerik gertatu, kontuan hartuta soilik balio analitikoa. Nolanahi ere, egiaztatu egiten bada pentsuari gehigarria gehitzearen asmoa baimendutako gehienezko muga gainditzea izan dela, orduan araudia urratu egin dela ulertuko da, nahiz eta balore analitikoa ezarritako tolerantziaren barruan egon.

Hona hemen egoera horren adibide bat: kobre sulfatoa gehitzea kobre sulfato horrek baimendutako gehienezko muga eman dezan, lehengaien ekarpena aintzat hartu gabe. Kasu horretan, balio analitikoa tolerantziaren barruan egon daiteke, baina urratu egingo da 1831/2003 (CE) Araudiaren IV. eranskineko 1. atalean xedatutakoa.

Zehazki, nola aplikatu behar dira eranskin horretan xedatutako tolerantziak? Etiketatuen tolerantzia mugak, aztertutako parametroaren beheranzko mugak dira edo bai eta goranzkoak ere?

Batzordearen 939/2010 (EB) Araudia (767/2009 (EB) Araudiaren IV. eranskina aldarazten duena) argitaratzearekin batera, zehaztu egiten dira etiketan adierazitako balioaren goranzko zein beheranzko tolerantziak, bai eta gehigarri batzuentzat zehaztutako gehienezko mugak gainditzen diren kasuetarako tolerantziak ere.